

6

Idazkiak
Ziurtagiriak

12

Euskalduntzea
Ostalari lanak
euskaraz

25

Ba al zenekien?
“Hiru eta
erdigarren”
karlistada



Inazio Arregi, Batikano Irratiko albistegiaren zuzendaria:

**“Elizak, hein batean,
bere zeregina galdu du”**

Teologo, filosofo eta, batez ere, esperientziadun kazetaria da Inazio Arregi. Euskadi Irratiko lehenengo zuzendari izandakoak ia 20 urte eman ditu jada Erroman, Batikano Irratiko albistegiaren buru. Ongi ezagutzen du telebista zein irratiko lana, kamara eta mikrofonoaren atzealdean dagoen mundua. Era berean, Batikano barruan gertatzen denaren aparteko ezagutza dauka. Esperientzia bikoitz horrek berebiziko aberastasuna ematen die Batikanoari buruz egiten dituen analisi eta kontakizunei. Berak azaldu dizkigu, aldaketa garai honetan, Elizak dituen arazoak, ardurak eta erronkak.

10. or.

Erreportajea:

Oporretarako leku eta liburu bila

Urte osoko laneko ajeak kentzeko modurik onena oporretara joatea da. Hala eta guzti ere, oporretako lekua ondo aukeratu behar da. Jende asko batzen den tokiak ez da oso aproposa izaten, eta gure elkarrizketatuek bada-kite hori. Den-denek lasaitasuna bilatu nahi dute, eta, bide batez, neguan pilatutako liburu bat edo beste irakurri.

13. or.



Eztabaida:

Zer iritzi duzu irakastereduen emaitzei buruz?

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko (ISEI-IVEI) erakundeak DBHko ikasleen (16 urte) euskara maila neurtu nahi izan du, eta emaitzak ez dira nahi bezain onak izan. Iritzi eske zenbait aditurengana jo dugu, eta bat datoz esatean hitz egiteko garaia dela: egocera sakon aztertu, lortu beharreko hizkuntza maila zein den ondo zehaztu eta bitartekoak jartzeko.

20. or.





PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Marratzkiak: Concetta Probanza

Zerbaki honetako lanlidaiek:
Aritz Agirre, Mikel Aizpuru, Jose Mari Arakama, Txomin L. Aramaio, Aintzane Arrieta, Yolanda Arrieta, Luis Elizondo, Joseba Erkizia, Roberto González de Viñaspre, Karmele Jaio, Montxo López de Ipiña, Luma, Joseba Lozano, Begoña Martínez, Nerea Pikabea, Josemari Robles, Rosa Mari Urrutia.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argiratutako artikulua berriro daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik aterata diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritzirik.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /<http://www.ivap.org>

PERTSONAIA



Gorka Otxoa, aktorea:

“Aktore batentzat aberasgarria da horrelako saio batean lan egin ahal izatea”.

Zirikatzeko gogoia sumatzen zaie bere aurpegiko keinuei. Keinu horiek batera edo bestera aldatuta, hainbat pertsonaiari bizitza ematen die. Astero gertatzen da hori, ETB 2ko *Vaya Semanita* saioan. Hogeita sei urteko donostiar hau oso gustura dago aktore lanean. Unibertsitatean psikologia ikastetik euskal herritarren terapiaren eragile izatera pasa da.

Nolatan zaude antzerkiaren munduan?

Txikitandik gustatu izan zait interpretazioa. Institutuan nengoela, hamalau urterekin hasi nintzen antzerkia egiten. Hemezortzi urte nituela, Donostiako Arte Eszenikoen tailerrean egon nintzen hiru urtez. Behin telebistako *casting* batera aurkeztu ginen antzerki taldekook. Handik aldi batera ETBtik deitu zidaten *Gure familia eta beste pizza batzuk* telesailan lan egiteko.

Hala ere, psikologiako ikasketen aldera egin zuen zure iparrorratzak...

Madrilera Arte Dramatikoa ikastera joan edo psikologia ikasi hemen; azkenean psikologia ikastea erabaki nuen. Urte batzuetan *Goenkalen* eta ikasten, biak batera egiten aritu nintzen, eta oso gogorra izan zen. Egia esan, geroztik beti izan dut lana, zorte handia izan dut.

Antzerkia ikasi nahi duenarentzat zer aukera daude hemen?

Aukera gutxi du jendeak; hemengo egoera lotsagarria eta triste da. Leku guztietan daude antzerkia ikasteko eskola publikoak, hemen izan ezik. Azkenean, ikasi nahi duenak Madrilera joan behar izaten du. Hemen ez da ikusentzunezkoen arloa sustatzen. Horrek lan asko ekarriko luke hona, eta kulturarako ere oso garrantzitsua litzateke, euskal kultura bultzatzeko batik bat.

Bi urte *Vaya Semanita*-n zaudela; saioaren arrakasta izugarria izan da. Erritmo bizi lan egin beharko da, ezta?

Ordu asko ematen ditugu *sketchak* grabatzen eta, gainera, paper oso ezberdinak eginez. Batean yonkiarena egiten duzu, bestean abokatua, hurrena ertzainaren larrazalean jartzen zara, eta abar. Denbora gutxian gidoia ikasi eta pertsonaiak prestatu behar izaten ditugu... Mundu hau gogorra da, baina oso polita da aktore batentzat, eta aberasgarria, horrelako saio batean lan egiteko aukera izatea.

Politikariek lortu ez dutena lortu omen duzue, alegia, pentsaera guztietako euskal herritarrek ados jartzea saioa ikusteko.

Kontuan izanda herri honetan zer nolako zailtasunak dauden, nik uste dut horixe dela, hain zuzen ere, programa honen ekarpenik handiena. Guztiak berdin tratatzen ditugu eta modu horretan ez diogu inori aukerarik ematen esateko: “zuek alde horretakoak zarete eta ez zaituztet ikusiko...”. Batzuetan alde batekoei ematen diegu egurra, eta hurrengoan beste aldekoiei. Hori dena umorearekin egiten dugu eta ez gara bataren edo bestearen alde jartzen. Pentsaera, adin, maila sozial eta ekonomiko desberdineko jendeak ikusten du saioa. Oso pozgarria da jendeak gustuko izatea.

Saioaren oihartzuna Espainiako kateetaraino iritsi da. Ur handiagoetan sartzeko prest egongo zinatekete?

Asmoren bat bada tartean. Eskaintza interesgarria bada, joan egingo naiz. Dena den, Estatu osoko aktoreak han daude eta presioa handiagoa da.

Psikologiak eta aktore lanak ba al dute antzekotasunik?

Psikologo lanetan aritzea ez dut oso argi ikusten; prestakuntza handia behar da. Baina bi lanbideen arteko nahasketa bat egingo nuke: antzerkiaren bidez terapia egin, esate baterako.

Goiz da etorkizunari buruz hitz egiteko, baina zerekin egiten duzu amets?

Interpretazioa oso gustuko dut, baina une honetan nire ametsa da kalera aterata ahal izatea inork ezagutu gabe... Ez dut ondo pasatzen intimitate falta horrekin. Ordu guztietan, leku guztietan, egoera guztietan, edonorekin zaudela, denek ezagutzen zaituzte. Larrialdietara joan eta ezagutu, jatetxean sartu neskaekin eta jatetxeko guztiak zuri begira... Baina zer egingo diogu: lana bera oso gustuko dut!

Nerea Pikabea
Kazetaria



Solomoa saltsan, Eusko Jaurlaritzan

Irakurle hori:

Beharbada jakingo duzu, baina 2.000 bat gizon-emakume gabiltza lanean-edo Etxe Zurian (Lakuan). Adinez, batez beste berrogeita bost urte; pisuz, berriz, laurogei kilo.

Udan gaude eta batek baino gehiagok "operación bikini" egin du (gizonezkoak zein emakumezkoak). Ondo kostata egin ere, hemen lanean-edo egon bada. Esango dizuet zergatik:

Gure lan-egutegia dela-eta, urtean zortzi hilabetez lanaldi zatitua daukagu: urrian hasi eta maiatzera arte. Gasteiztarrak ez garenok Lakuan bertan edo inguruetan jan behar izaten dugu, eta horretarako daukagun denbora berrogeita bost (45) minutukoa da.

Hiru aukera dauzkagu bazkaltzeko: barruan daukagun jantokia, inguruko jantokiak eta etxetik ekarritako jana. Banan-banan aztertuko ditugu:

1) Barruan daukagun jantokian bazkaltzen dutenak.

Jantoki honetako menua antzekoa izaten da urte osoan: entsalada "hornitua" (letxuga, tomatea eta kipula), paella, latako lentejak, espagetiak, oilaskoa (luma-gorria ez, portzierto), eskalopea, solomoa saltsan, arraina (identifikatu gabekoa) eta postrea. Prezioa: 7,20 €, BEZ, ura eta urteko ardoa barne.

2) Inguruko jatetxeetan bazkaltzen dutenak.

Gutxi gorabehera aurrekoaren antzeko menuak eskaintzen dituzte. Hori bai, serbiletak eta mantelak eleganteagoak dira (telazkoak) eta menuan kafea ere sartzen da. Jakina, prezioz pixka bat garestiagoak: 8,50 €.

Merkeago jan nahi baduzu, jantoki txinatarrak daukazu 5,50 €. Ogia ez da sartzen, jakina.

3) Jana etxetik ekartzen dutenak.

Jateko ordua heltzen denean hor ikusiko dituzu hara-hona, poltsa eskuan dutela. Bilboko Gran Vian ere ez dituzu ikusiko erosketetako hainbeste poltsa. Hori bai, dendarik eta garestienetakoak eurak: Cortefiel, Massimo Dutti... Merkealdietan gaudela ematen du!

Ekarritako jana mikrouhinetan berotu eta eurentzako propio egokitutako jantokian bazkaltzen dute.

Ba inoiz pentsatu izan baduzu Lakuan lan egiten dugunok ondo baino hobeto jaten dugula, badakizu: oker ibili zara. Osasun Saila ez da gure osasunaz arduratzen.

Gero urteroko txekoa dator: bataz hezueri edo "gota" daukala, besteak kolesterolak... Ebaristok kantari zioen legez: "...Yo, con el asunto del papeo, ahora me doy cuenta porque somos tan feos..."

Mikel Elordi «Totolo»

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



Zuen iritziak, proposamenak, iradokizunak... bidaltzeko, idatz ezazue helbide honetara: webivap@ivap.es. Mezuarekin batera, izen-abizenak eta ENA adierazi beharko dituzue. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du testuak laburtzeko.

Hizkuntzen Portfolio Europarra

Europako Kontseiluaren Hizkuntza-Politikarako Atalak garatu eta gorpuztu du Portfolioaren proiektua, 1998 urtetik 2000ra bitartean, eleaniztasunaren nahiz kultura-aniztasunaren garapenean tresna bilaka dadin asmoarekin.

Portfolioak helburu nagusi bi dauzka. Lehenengoa pedagogikoa da: ikasleen motibazioa landu eta garatu nahi da, beren hizkuntza-gaitasunak maila guztietan zabaltze eta dibertsifikatze aldera, beti ere ikas-prozesuan egin ditzaketen ahaleginak aintzat hartuta. Portfolioaren bigarren helburua dokumentala da, ikasleen eskueran jartzen den tresna hau hizkuntzez eta kulturez bereganatuta dauzkaten ezagutzak eta trebetasunak besteri erakusteko pentsatuta dagoelako. Xedea da, beraz, portfolioaren jabeak zein-nahi hizkuntzatan dauzkan gaitasunak eta esperientziak agertzea, modu oso, garbi eta fidagarri batean. Horretarako, portfolioak deskribatzaile argigarriak eskaintzen dizkie ikasleei, hizkuntzen ikasketan erdietsi dituzten gaitasun-mailen ebaluazioan laguntzeko, eta hau guztia xeheki zehaztua eta nazioartean adostutako irizpideen arabera eginga. Honengatik guztiagatik, tresna praktikoa izan daiteke, besteak beste, ikasleak gora-goko ikasketak maila batera aldatzera doazenean edo beren lurraldean nahiz atzerrian lan bila doazenean. Nolanahi ere, argi geratu behar du portfolioa ez datorrela ezein hizkuntza-egiaztagiri ordezkatzera.

Hona hemen hizkuntza bat ikasi duen edo ikasten diharduen orok –eskolan dela edo kanpoan dela– bere ikas-prozesua eta kultura-esperientziak jasotzeko baliak ditzakeen portfolioaren hiru zatiak: hizkuntzen pasaportea, hizkuntza-biografia eta dosierra.

1. Hizkuntzen pasaportea

Ikasleak hizkuntzetan dauzkan esperientziak eta trebetasunak jasotzeko bilduma laburra da, aldian-aldian eguneratu beharrekoa. Ziurtagiri eta diplomak berri jaso dezake bertan ikasleak, baita auto-ebaluazioa egin ere.

2. Hizkuntza-biografia

Hizkuntza ikasten egindako ibilbidearen erregistroa da. Ikasleari helburuak zehazten lagunduko dio, baita izan dituen hizkuntza-esperientziez eta kulturarteko esperientziez gogoeta egiten ere.

3. Dosierra

Ikasleak ziurtagiriak eta diplomak bil ditzake hemen, baita egindako lanen aukeraketa ere, bere hizkuntza-trebetasunak eta esperientziak besteri erakutsi ahal izateko.

Arestian esan bezala, portfolioan deskribatutako gaitasun-mailek nazioarteko adostasuna daukate, Europako Kontseiluak prestatutako Erreferentzia-Markoan oinarriturik bai-

taude. Lan garrantzitsu hau euskarara itzuli berria da *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa* izenburuarekin, eta laster plazaratuko dute HABEK eta Hezkuntza Sailak. Bertan erreferentzia-marko komunak zehazten dira, hizkuntzen gaitasun-mailak kalifikatzeko sistema desberdinen artean konparazioak egiteko balio dutenak. Erreferentzia-Markoa deritzon dokumentuan, guztira, sei gaitasun-maila bereizten dira, berez hiru maila zabaleko eskeman (A, B, C) uztartzen direnak: oinarritzko erabiltzailea, erabiltzaile independentea eta erabiltzaile aurreratua. Hona jarraian banaketa osoa:

Oinarritzko erabiltzailea (A):

- A1/ Hasierako maila.
- A2/ Tarteko maila.

Erabiltzaile independentea (B):

- B1/ Atalase maila.
- B2/ Maila aurreratua.

Erabiltzaile gaitua (C):

- C1/ Gaitasun operatibo eraginkorra.
- C2/ Menderatze-maila.

2000. urtean Suitzan lehenengo portfolioa sortu zenez geroztik, beste hirurogeita lau portfolio balidatu ditu gaur arte Europako Kontseiluak. Hauen artean dago urte hartan ere EAQUALS eta ALTE erakundeek gauzatu zuten ikasle helduentzako. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila bigarren erakunde horren kide da, eta 2004an portfolio hori euskaratu eta frantsesa, ingelesa eta gaztelaniarekin batera argitaratu du. Portfolioaren informazio zabala eskuragarri dago, hainbat hizkuntzatan, Europako Kontseiluaren webgunean: www.cor.int. Era berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarenera jo daiteke: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Bestalde, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako portfolioak euskaratu berri ditu, Ministerioak Europako Kontseiluan balidatutakoak, eta datorren ikasturtean gure hezkuntza-sareko zenbait ikastetxetan esperimintatzeko asmoa dago.

Roberto González de Viñaspre

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko teknikaria

Ziurtagiriak

Idazki-eredu hauek *IVAPeko estilo-liburu*¹-tik aterata daude (laburturik); badakizu, beraz, nora jo, argibide gehiago nahi izanez gero.

Definizioa

Ziurtagiria idatzizko aitorten ofizial bat da, eta dena delako datu, ekintza, erabaki edo gertaera egia dela baieztatzen du.

Idazteko irizpideak

Era askotako ziurtagiriak daude; dena dela, forma aldetik atal hauek izango ditu:

- **Izenburua:** *Ziurtagiria* jartzea ez da nahikoa, egiaztatutakoa hobeto zehaztu behar dugu; batzuetan, izenburu bakarra erabilia:

Bertaratze-ziurtagiria

Beste zenbaitetan, bigarren izenburu baten laguntzaz:

ZIURTAGIRIA
Komunikazioa lantzen ikastaroa

- **Egiaztapena:** atal honetan datu bi jarri behar dira gutxienez: eskatzailearen datuak (izen-abizenak, NAN...) eta ziurtagiriak aitortzen duena. Azken hau da zatirik garrantzitsuena, eta argi, zehatz eta labur jarri behar da. Eskatzailearen datuak testuan sartzen ahaleginduko gara, baina kontu handiz: esaldi luze eta korapilatuak erabili gabe; gainerako datuak, hau da, ikastaro edo jardunaldiei dagozkienak, aparte eta zerrendatuta jarriko ditugu.
- **Amaierako esaldia:** formula bat da. Modu askotara jarri izan da. Guk hauxe aukeratu dugu: *Eta horrela jasotzen dut ziurtagiri honetan.*
- **Egiaztatzailearen datuak:** lehenengo, sinadura; eta gero, azpi-azpian, izen-abizenak eta kargua.
- **Toki-egunak:** amaieran.



IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

BERTARATZE-ZIURTAGIRIA

MIREN DAZA URIBE andrea

hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetan izan da.

Tokia	Vitoria-Gasteiz (UNEDeko egoitza)
Eguna	2005eko ekainaren 24a
Iraupena	09:00 - 13:30

Eta horrela jasotzen dut ziurtagiri honetan.



Xabier Gorostiza Imaz
Euskalduntze Zerbitzuko ebaluazio-arduraduna
IVAP

Vitoria-Gasteiz, 2005eko ekainaren 24a



Estatuaren autonomia
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

¹ Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *IVAPeko estilo-liburu*. Vitoria-Gasteiz: IVAP, 2005.



Ikastaroa/Curso:

La simplificación del lenguaje administrativo

Don **AITOR ARAKAMA LATORRE** jaunak

ikastaro honetan hartu du parte:

ha asistido al siguiente curso:

Izena/Título	La simplificación del lenguaje administrativo
Iraupena/Duración	20 ordu/horas
Noiz/Fecha	2005eko urtarrilaren 11tik 14ra del 11 al 14 de enero de 2005
Antolatzailea/Organización	IVAP
Tokia/Lugar	Vitoria-Gasteiz

Eta horrela jasotzen dut ziurtagiri honetan.

Para que así conste expido el presente certificado.

Jose Uriarte Robles
Jose Uriarte Robles
Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria
IVAP

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 15a

Doña **BEATRIZ AMATRIA LAIZ** andrea

IVAPen ordezkaria izan da itzultzaileak hautatzeko epaimahaian. Ondoko zeregin hauetan hartu du parte:

representante del IVAP en el tribunal de selección de traductores/as, ha prestado la asistencia que a continuación se indica:

1. EPAIMAHAIAREN BILERAK REUNIONES DEL TRIBUNAL CALIFICADOR

Egunak Dias	Hasiera-amaiera orduak Horas de inicio y finalización	Egunak Dias	Hasiera-amaiera orduak Horas de inicio y finalización
2004/03/08	09:00 - 13:00	2004/03/18	09:00 - 13:00
2004/03/10	09:00 - 13:00	2004/03/22	09:00 - 13:00
2004/03/15	09:00 - 14:00	2004/03/24	09:00 - 13:00

Orduak, **GUZTIRA**
TOTAL horas, **25**

2. PROBA PRAKTIKOAK ETA ERANTZUN ZABALEKO GALDERAK SORTU EDO ZUZENDU PREPARACIÓN O CORRECCIÓN DE PRUEBAS PRÁCTICAS Y EXÁMENES DE RESPUESTA ABIERTA

Orduak
Horas **10**

3. AUKERA ANITZEKO GALDERAK SORTU REALIZACIÓN DE PREGUNTAS DE RESPUESTA ALTERNATIVA

Galdera kopurua
Nº de preguntas **25**

Orduak
Horas **12**

4. JOAN-ETORRIAK DESPLAZAMIENTOS

Orduak
Horas **6**

Eta horrela jasotzen dut ziurtagiri honetan, egindako lanak aitortu eta ordainsaria kobra dezan¹.

Y para que así conste a efectos de reconocimiento y compensación de los servicios prestados, expido el presente certificado¹.

Mikel Garmendja Gorostiza
Mikel Garmendja Gorostiza
Idazkaria

Eibar, 2004ko apirilaren 2a

O.e./V.B.
Nerea Arrieta Isasi
Epaimahaiaburua

1. Ordainsariez gehiago jakiteko, ikus otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua eta abenduaren 19ko 267/2000koa (aurrekoa aldatzen duena).
1. Para mayor información sobre retribuciones, ver Decreto 16/1993 de 2 de febrero y Decreto 267/2000 de 19 de diciembre (que modifica el anterior)

**IVAPeko Administrazio
Hizkeraren Atala**

**Jose Mari Arakama,
Aintzane Arrieta,
Joseba Lozano,
Josemari Robles,
Rosa Mari Urrutia**



Mundua online

Internet eta erabilerraztasuna

Internet, jakintzaren sare unibertsala izateko sortu zena, informazioa jasotzeko eta kudeatzeko egundoko aldaketa izan da. Hala ere, arazo diferentek direla medio, badira zenbait pertsona (pertsona ezinduak, nagusiak...) arazoak izaten dituztenak zerbitzu hau erabiltzeko.

Arazoak saihestu nahian, Europar Batasuneko Kontseiluak bultzatu egiten ditu estatukide guztiak eduki digital erabilerrazak edukitzera (2002ko martxoaren 25eko ebazpena). Gomendio horien harira, Espainiako Gobernuak lege bat onartu zuen: informazio gizartea eta merkataritza elektronikoaren zerbitzuei buruzkoa, uztailaren 11ko 34/2002 Legea.

Legeak beharrezko neurriak hartzeko eskatzen die herri administrazioei. Ondorioz, 2005eko abenduaren 31 baino lehen, herri administrazio guztiak bere Internet orrietako informazioa ezintasunaren bat duten pertsonen eta adinekoen erraz eskuratzeko moduan jarri beharko dute.

Beraz, administrazio publikoetako langileok data hori daukagu webgune erabilerrazak egiteko, eta orokorrean WAI lantaldearen AA maila lortzea hartu da helburutzat. Maila hau lortzen duten webguneek logotipo hau erakuts dezakete:



Maila honek ezartzen dituen baldintzak, jarraibideak, konprobaziorako azterketak, e.a. helbide honetan ikus daitezke: <http://www.w3.org/WAI/>

Luis Elizondo
l-elizondo@ej-gv.es

JAKINET, eusko ikasgaiak online

Eusko Ikaskuntzaren *Asmoz* Fundazioak, euskal kultura eta zientzia zabaldu eta sustatu nahirik, *JAKINET* ikastaroaren 6. edizioa abiaraziko du Interneten bidez. Helburu nagusia alor horretako adituak prestatzea da. Nork har dezakeen parte? Bada, lizentziatuek, diplomatuak, unibertsitateko ikasleek, lanean diharduten profesionalak, eta, oro har, euskal kulturaren sakondu nahi duen edonork.

Ikastaroak hamahiru jakintza-arlo hartzen ditu, eta hainbat modulutan banatuta dago. Guztira 250 ordu izango dira, baina ikasleak nahi dituen moduluak egiteko aukera izango du; hori bai, gutxienez 50 ordu eginda.

Ikasturtea 2005eko urrian hasi eta 2006ko ekainaren 30ean bukatuko da. Ikastaroko Zuzendaritzak curriculum eta izen-emate ordena hartuko ditu kontuan ikasleak hautatzerakoan. Izena emateko epea 2005eko irailaren 30ean bukatuko da.

Informazio gehiago:

Eusko Ikaskuntzaren *Asmoz* Fundazioa
Villa Asunción. José Eloseggi Alkatea 275
20017 Donostia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-212369
JAKINET@asmoz.org
www.asmoz.org/JAKINET

Hipoteka legeria euskaraz

Lege-testuak izeneko bildumak beste itzulpen-lan bat hartu du bere baitan: *Hipoteka-legeria*. Gaztelaniatik euskarara ekartzeko ardura Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) hartu dute; bestalde, zuzendari lanetan Andrés Urrutiak eta Eba Gamindek jardun dute. Testuak bi zutabetan agertzen dira, gaztelaniaz eta euskaraz. Aurkibide analitikoari esker, erraza da kontzeptuak legean egoki kokatzea eta beste hizkuntza ofizialean duten baliokidea aurkitzea.

Ikerkeria

Aldizkari berri bat dugu plazan: *Ikerkeria*. Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerketa Errektoreordetzak argitaratzen du, eta helburua hau da: EHUko ikerlanak gizarteari modu errazean ezagutzera ematea. Urtean lau ale izango ditu, eta, horiez gain, *Zientzia eta Teknologiararen Astea*-rekin lotutako ale berezi bat. Aldizkariak postaz helaraziko zaizkie enpresa, ikergune, unibertsitate eta gizarte eragileei. Ongi etorri!



Juan San Martín

Juan San Martín zendu da. Euskaltzale sutua eta idazle oparoa; euskaltzaina eta Ararteko ere izandakoa. Joan da, baina gogoan izango dugu beti euskararen alde egindako ahalegina eta lana.

SALDARAKO

Herri txiki batean jaio zen, orain bizi den lekutik milaka kilometrora. Neska bakarra zelako-edo, txiki-txikitatik hasi zen laguntzen etxean. Neska-mutil gazteenen gobernua bere kargu, eta neba zaharragoen arropa eta ohea ere bere kontu.

Ezkundu da, eta milaka kilometrora alde egin du gizonarekin, jaiotetxea urrun, etorkizun hobe baten itxaropenean.


Ezkontzako lehen urteak azkar igaro dira: gizonaren lana, etxea jantzi behar, lehen umea, bigarrena... Ez du amarik edota ahizparik izan, gertu. Eta, norbaiten premia sumatu du, bai, behin baino gehiagotan sumatu ere, baina, halakoetan familia aurrera ateratzeko gai izatea munduko indarririk betegarriena dela iruditu zaio. Alegia, aurrera egin beharrak ez dio tokirik utzi atzera lagatako herria, gurasoak, nebak, ahizpak eta lagunak lauso grisez gogoratzeko.

Urte asko pasatu da, harrez gero. Lantegiak erretiro plana eskaini die 55 urtetik gorakoei. “Hori ala birziklatu”. Dena informatizatu baitute lantegian, bai bulegoak, bai produkzio katea. Makina berriak sartu dituzte, atzamarra zapalduz programatzen diren horietakoak. Gizonak ez du ezagutzen, ordea, ez teklarik, ez botoirik, ez atzamarrez programatzen den makinarik. Alaba zaharrenak argi dauka, baina: “erretiroa hartu, aita, lasaiago ibiliko zara-eta”. Semea ere iritzi bereko azaldu zaio: “Bai horixe! Benidorrera joateko!”. Amak ez du ezer esan: zer erretiro geratzen zaion ikusi behar. Eta ez, ez zaio hain txarra ere egokitu: hogeita hamar urte lanean ibili direnei pentsio polita geratu zaie. Eta, ondorioz, gizona erretiratu egin da, hain justu, alaba ezkondu den udan bertan. Udazkenean, berriz, semeak kanpora alde egin du beka baten laguntzaz.

Hurrengo udan iritsi da lehen biloba ere. Pozik daude denak. Semea tarteka baino ez da etortzen etxera, oporretan, zubiren batean... oso urruti baitago Alemania. Ilobaren bataiorako aitzakiarekin hurbildu zen udazkenean. Hurrengo, berriz, urte zahar gauean. Neska lagun bat ekarri zuen, orduan, eta elkarrekin lo egin zuten. Dena den, ez omen dira “ezer”; lagunak, bakarrik.

Etxean egon diren bitartean, amak egun bitik behin aldatu dizkie izarak, eta bikote gaztea gustura murgildu da, gauero, leungarri usaineko ohean. Etxekoandreak egunero jarri die zerbait berezia jateko: Tolosako babarrunak, herriko behiaren xerrak, txipiroi freskoak, albondigak, mihia, baserriko oilaskoa, untxia, bizkotxoak, natilak...

Alaba, suhia eta iloba txikia ere etorri dira asteburu eta jai handietan bazkaltzera. Halakoetan, etxe bete lagun duela ikusita, andrea pozarren irten da bezperaz kalera, karrotxoak hartuta, familiarentzat fruta erruz eta ogia barra-barra erostera. Gizonak ere lagundu dio, behin baino gehiagotan, emaztearen ilusioak kutsatuta. Hipermerkatura joan dira, bikote



ezkonberrien antzera. Autoa kargatu eta azkar itzuli dira etxera. Bazkaria prestatu du andreak, mahaia jarri du gizonak. Gustura eseri dira, gero, tertulian, seme-alaben mundua urrutiko ipuin bat balitz bezala iruditze irrikaz.

Oporrak bukatzean alde egin du semeak bere lagunarekin. Alaba eta suhia ere itzuli dira lanera. Iloba, berriz haurtzaindegira. Aurreneko egunetan, garbigailua betetzearen zain, fruteroa husteko gogoz eta zer lisatu bila aritu da amona, aitona behin eta berriz egunkaria birpasatu bitartean. Ostiral eguerdian piztu zaio bihotza, alabak telefonoz hots egin diotenean:

–Ama, bihar ezkontza dugunez, haurra utziko dizuegu asteburuan. Gu igandean joango gara. Konforme? Gorde zerbait hurrengo asterako, tuper hutsak eramango dizkizut-eta.

Amona, emazte eta ama den amak baietz esan dio alabari, nahi dutenean etortzeko, umearentzat izar zopa eta oilasko errea prestatuko dituela biharko, eta makarroiak iganderako. Telefonoa eskegi eta sukaldara abiatu da, bizkor-bizkor: “badatoz!”, esan dio gizonari. Hozkailua ireki eta biribilkia, txibia, mihia, hezur bi, oilaskoa, untxia eta egostekoa atera ditu izozkailutik. Sua piztu eta lapiko espresa jarri du martxan..

Gizonak porru bi ekarri dizkio txabolako ortutik.

–Saldarako.

Yolanda Arrieta
Idazlea



Inazio Arregi, Batikano Irratiko albistegien zuzendaria:

**“Egungo gizarte anitzean
besteen moral edo erlijioekin
harremanak hobetu beharko ditu
Elizak, ezer inposatu gabe”**

Oñatin jaioa, 1931ko abuztuaren 6an, Inazio Arregik hamazazpi urterekin hasi zituen ikasketak Jesusen Konpainiaren baitan: Filosofia eta Teologia lehenik, Gizarte komunikabideak ondoren, Deustuko Unibertsitatean eta Bergamon (Italian). Irrati eta telebistan espezializatua, Loiolako Herri Irratian esatari hasi eta irratiko zuzendari ere jardun zuen. 1982an bera izan zen Euskadi Irratiko sortzaileetarikoa, eta hiru urtez lehen zuzendaria. 1986. urteaz geroztik Batikano Irratian dabil, albistegi buru.

Aldaketa garaiak bizi dituzue Batikanoan. Joan Paulo II.a joan da eta Benedicto XVI.a etorri. Zertan somatzen da aldaketa?

Goizegi da aldaketarik somatzeko, oraindik egun gutxi egin baititu agintean. Aldaketak arinak izan dira, eta oraindik jakiteko dago Batikano barruko kargu handiak aldatuko dituen ala ez. Oraingoan, esaterako, karguan jarraitzen du estatu idazkari (kargurik inportanteena) Sodano kardinalak.

Bestetik, ospakizunak arindu, sinpletu egin ditu eta beatifikazioak Batikanoan egin beharrean, tokian tokiko eliz-barrutian egingo dira. Horrek esan nahi du, beharbada, gutxitu egingo direla beatifikazioak.

Kontserbadorea omen da Benedicto XVI.a. Malgutasunaren etsaia izanen da, gizartean gertatzen ari diren aldaketen aurrean?

Benedicto XVI.ak bere historia izan du aurretik, eta horrek zenbait kezka eragin du elizako hainbat talderen artean. Batzuek nabarmendu dute Ratzinger Fede Doktrinaren buru zegoenean berrehun izan zirela larri ibilitako teologoak, zigorra-edo jaso zutenak... horiek begira daude hemendik aurrera zer gertatuko ote den. Baina gauza bat da Batikanoko Kuriako batzordeko arduradun izatea, eta bestea eliza osorako Aita Santu izatea.

Hego Euskal Herrian, espainiar estatu osoan orohar, gogor egin du elizak bikote homosexualen ezkontza, haurren adopzio edota ikerketarako enbrioiak erabiltzearen aurka. Batikanoraino heldu dira liskarraren hotsak?

Kardinal batzuk agertu dira, bai, gobernu sozialistaren aurka. Funtsezko gai hauetan Ratzingerrek moral ofizialaren bidetik jarraituko du, baina, agian, orain arte erabili duen estiloa aldatuta; izan ere, Aita Santu batek horrelako eztabaidetan

goi mailatik hitz egiten baitu, borrokan sartu gabe, besteei aholkuak emanaz. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da sinodo batean Martini kardinalak esan zuena: “elizak, nahiz eta bere sexu-moral ofiziala ez aldatu, beste bide batzuk bilatu behar ditu elkarrizketan hasi eta bere doktrina beste era batean azaltzeko”. Alegia, besteekin elkarrizketan aritu eta harremanetan jarri beharra dauka.

Ba ote du islarik euskal elizak Batikanoan?

Ez gehiegi. Duela urte batzuk euskal elizak estimazio handia zeukan Eliza osoan. Orduan Euskal Herrian kristau sinesmena pil-pilean zegoelako, bokazioak ere asko ziren. Alabaina, hori asko galdu da, erabat gutxitu dira bokazioak. Sinesmen eta moral alorrean aldaketa handiak izan dira gure Euskal Herrian, baita familia beraren egitura ere. Horregatik, kezka pixka batekin begiratzen dio Euskal Herriari Batikanoak. Munduan zehar, ordea, oso estimatuak dira oraindik apaiz eta misiolari euskaldunak.

Bestetik, Euskal Herrian izan den indarkeriak ondorioak izan ditu. Batikanoan batzuek indarzaletzat gauzkate, edo, behintzat, zerbait susmatzen dute gudan. Sarri, zertxobait aparte bezala begiratu izan gaituzte, arriskutsuak bagina bezala.

Mundu zabalean ere Elizak bizi duen krisiaz asko idatzi da. Krisi horri aurre egiteko modurik ba al dago?

Elizak, hein batean, bere zeregina galdu du, estatuak hartu baititu bere gain zenbait ekimen; lehen elizaren lana oso garrantzitsua zen eskolan, unibertsitatean, langileen elkarteetan... Orain estatuak gaitasuna dute zerbitzu horiek eskaintzeko, eta, beraz, elizak beste gauza batzuetan ahalegindu beharko du. Bestetik, demokraziaren garapenarekin egun inork ezin dio besteari ezer inposatu, “gizarte anitza”-ren errealitatean bizi

gara. Hori berria da, eta elizari kosta egiten zaio, bere tokia galteaz gainera, besteen moral eta erlijioak errespetatzea. Elizak aztertu beharko du zer gauzatan ahalegindu behar duen, eta besteekin harreman hobeak sendotu, goitik behera agindu edo ezer inposatu gabe.

Batikano Irratia

Nolakoa da Batikano Irratia, zer informazio eta programazio eskaintzen du?

Batikano Irratia zaharrenetakoa da; 1931. urtean hasi zen emititzen, eta bere lehenengo ingeniaria Markoni ospetsua izan zen. Batikano Irratiak izen handia du: guztiak onartu dute nazioarteko irrati bezala. Teknika aldetik oso handia da; programazio aldetik ordea, uste baino gutxiago. Laurehun langile inguru gara, eta antenak indar handia du. Hala ere, egun bere transmisoreen potentzia murriztu behar izan du, hainbat herritarren salaketak direla medio. Hori konpontzeko, satellite bidez bidaltzen ditugu gure programak munduan zehar, eta emeki-emeki Interneten bitartez zabaltzen ari gara entzuleak.

Botere independentea da Batikanoa. Nola moldatzen zarete gai politikoak edo kutsu ideologiko nabaria duten gaiak lantzeko orduan?

Saiatuta... Italiako informazioekin tentuz ibili behar dugu, ez dugu bertako gai zorrotzik gehiegi lantzen. Berez, badakigu zeintzuk diren gure mugak, Batikanoak zeintzuk gai ez dituen gustuko. Baina geure burujabetasuna daukagu behar dugun lana egiteko eta, batez ere, entzuleak estimatzen du guk munduko gai guztiak lantzea, ez nazio batekoak bakarrik.

Eleberritan asko entzun dugu Batikano barruko intriga edota giro ilunaren inguruan, non enigma eta misterioa gailentzen den. Zenbat da fikzioa, zenbat errealitatea?

Zerbait badago, nola ez. Liburu horietan beti dago errealitatearekin antzekotasunik, baina ezer gutxi. Kuria barnean, noski, elizgizonek beren arazoak dituzte, gorabeherak edo egonezak. Dena den, uste baino gauza txikiagoa da, botere handirik ez baitago: Donostiako Udalak duen adina aurrekontu dauka Batikano osoak... Sarri barregarriak dira guretzat honen inguruan irakurri izan ditugun liburuak. Ez dute batere sinesgarritasunik merezi.

Euskarazko irratia ren sorrera

Euskal Herrian hasi zenuen irratiko lana. Oso ezberdina al zen orduko lana?

1965ean hasi nintzen Herri Irratian eta orduan giroa oso latza zen. Benetan beldurrez bizi ginen, larri: euskara erabili ala ez, euskarazko kantak jarri ala ez... inposaketa giroan bizi ginen, zalantzarik gabe, mehatxua beti gainean.

Demokraziaren etorrerarekin, Euskadi Irratia martxan hasi zenean, ilusio handiko momentuak bizi izan genituen, gauza guztiak berriak zirelako: legebiltzar berria, gobernu berria... Handinahirik gabe, gure herriaren tamainako telebista eta irratia egiteko helburuarekin hasi ginen. Gero, handitzen eta sendotzen jarraitu du orduko egitasmoak.



Nolakoa zen Euskadi Irratia, jaiotzen berria zenean? Zeintzuk ziren orduko zailtasunak edo zalantzak?

Irratian zalantzan ginen euskara hutsezko kate bat egin ala ez. Azkenean, bi kate ezberdin egiteko erabakia hartu zen bai irratiari, bai telebistari: bata gaztelaniaz, bestea euskaraz. Horrez gainera, Gasteiz irrati Arabari zuzenduta.

Informatiboak euskara hutsean egiteak bazituen arriskuak: euskararik ez zekitenak kanpoan lagatzea, informatiboaren edukia bera mugatua izatea hizkuntza aldetik. Baina horrek abantailak ere bazituen: euskara landu, erabiltzeko aukera, euskaldun herriari poza eman ahal izatea. Horren aldeko apustua egin genuen, orduan euskara asko landu beharra zegoelako. Merezki izan zuen euskarari lehentasun guztia ematea.

Egun globalizazioari esker mundua oso zabala da. Komunikabide eta hizkuntza handiek agintzen dute. Zer egin dezake esparru mugatuko irrati batek, irrati txiki batek, entzuleak bereganatu eta bizirauteko?

Bost baino gehiago ez dira mundu osoko komunikabide handiak. Horien esku utzi behar al dugu informazio lan guztia? Horrek ez du zentzurik, aldrebeskeria bat izango litzateke. Herri batek kultura, nortasuna, zer esatekorik baldin badauka, gaitasuna eduki behar du bere pentsaera eman, bere aukerak egin eta bere hitza zabaltzeko.

20 urtez jaioterritik kanpo. Gogoan duzu Euskal Herria?

Nik ez diet erromantiko hutsei, munduan Euskal Herria bezalakorik ez dagoela pentsatzen dutenei, arrazoirik emango. Mundua zabala da, eta Euskal Herria besteko herri on eta interesgarriak badira. Euskal Herriak badu bere berezitasuna, gure egoera zaila da: nola bizi Europaren erdi-erdian, eta geure nortasun bereziari eutsi? Bi tentsio horiek beti izango ditugu: garen modukoak izan, baina Europa erdian bizi. Horren aurrean, ez ditugu geure ate eta leihoak beldurrez itxi behar, kanpoko haizeek gure etxean hotza eta ongieza eragingo balute bezala. Aitzitik, gure ate eta leiho guztiak zabaldu eta kanpora begira bizi behar dugu. Hori izango da gure erronkarik ederrena.

Aritz Agirre
Kazetaria

OSTALARITZA

Ostalaritza euskalduntzen: ikasmaterial bilduma berria eta ikastaro bereziak

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari jarraiki, taberna eta jatetxeetan erabilpen mintzatua areagotzeko asmoz hona hemen HABEk duen egitasmo berria: ostalaritzako langileei zuzenduriko ikasmaterialak eta ikastaro bereziak antolatzea.

Euskararen erabilera aldetik ostalaritza gune estrategikoa da. Euskal ostalaritzak zerbitzu ezin hobea eskaintzen du, baina, tamalez, ez du zerbitzu hori beti euskaraz eskaintzen, gehienetan euskaraz egiteko gai ez direlako bertako zerbitzariak. Horretaz jabeturik, HABE erakundearen egitasmoa zerbitzu hori euskaraz bideratu ahal izateko bitartekoak eskaintzea izan da. Horretarako, lehenbizi Elhuyar fundazioarekin batera burututako *Ostalaritza* izeneko ikasmaterialak argitaratu ditu, eta orain ostalaritzako langileentzako ikastaro bereziak antolatu nahi ditu.

Zer dira “Ostalaritzan” ikastaroak?

Ostalaritzan lan egin eta euskara ikasten hasi nahi dutentzako ikastaro linguistikoak dira, taberna eta jatetxeetan oinarri-oinarrizko komunikazioa euskaraz egiten ikas dezaten.

Norentzat dira?

Ostalaritzan lan egin eta, ondorioz, egunero bezeroen agurrei eta eskaerei erantzun behar dieten langileentzat.

Zertarako?

Taberna eta jatetxeetako langileek euskara ikasteko lehendabiziko urratsak eman eta zerbitzua euskaraz eman dezaten. Horrela, gai izango dira, besteak beste, bezeroak agurtu, bezeroen eskariak ulertu eta oinarritzko elkarrizketetan euskaraz erantzuteko.

Iraupena?

Guztira, 60 ordu.

Zein ikasmaterial erabiltzen da?

Ostalaritza bilduma: bezero eta ostalaritzako langileen arteko komunikazio egoerak lantzeko bereziki diseinututako ikasmaterial bilduma.

Ostalaritza bildumak bi liburu ditu eta 20 unitateetako elkarrizketak biltzen dituen CDa dator liburuekin batera.



Zer ikasten da?

Oinarrizko komunikazioa ostalaritzako egoera arruntetan. Hona hemen adibide gisa ikastaro hauetan landuko diren hainbat gai eta egoera: edariak eta pintxoak euskaraz zerbitzatzeko ikastea, bezeroak kontua eskatzen duenean ulertzea eta kobrantza egitea, mahaiaren erreserba egitea, eguneko menua eskaini eta eskaera ulertzea...

Ikastaro hauetako ikasleek ulermena garatuko dute batez ere. Bezeroek euskaraz egindako eskari errazak ulertzea da helburua, edota ulertzeko zailtasunak izatean ikaslea gai izan dadila eskatzeko bezeroari eskaria polikiago egiteko.

Ulermenerako hiztegiaren ezagutza funtsezkoa da, eta horrexegatik eskaintzen zaio ikastaro hauetan garrantzi berezia taberna eta jatetxeetako hiztegiari. Hona hemen besteak beste landuko den hiztegia: agurrak, edariak, janariak, infusioak, jaki prestatuak, postreak, mahai eta sukaldeko tresnak...

Ikasleek ulermena garatzeaz gain, elkarrizketa sinpletan parte hartzen ere ikasiko dute. Taberna eta jatetxeetan erabiltzen diren hainbat esaldi funtzional ere buruz ikasiko dituzte, adibidez: *zer hartu behar duzue?*, *beste-rik?*, *ez daukat kanbiorik*...

Ikastaroan landuko diren gaiak bi ataletan banatzen dira: tabernan eta jatetxean. Hona hemen adibide gisa horietako batzuk: edariak, kobratzen, freskagarriak, musika, debekua, bokadiloak, gosaria, menua, kexa, eguneko menua, erreserba...

Ostalaritza ikasmaterialak eskuratzeko edota ikastaroak antolatzeko eskariak bideratzeko: HABE (info@habe.org) eta tel. 943-022600)

Begoña Martinez

HABEko Ikasmaterialen ataleko arduraduna

Oporretarako leku eta liburu bila

Askok leku berriak ezagutzeko grina izaten dute oporretan. Beste batzuek, berriz, nahiago izaten dute toki ezagun batera joan. Elkarrizketatutako lagunak ezagunak dira euskaldunon artean, eta intimitate bila joaten dira. Guztientzako “lasaitasuna” da oporretako berba klabea, eta familia edo hurre-hurreko lagunak aukeratzen dituzte bide-lagun modura. Batzuek haurtzaro edo nerabezarotik ezagutzen dituzten herriak eta txokoak bisitatuko dituzte berriro. Besteak hiria alde batera laga eta jaioterrira bueltatuko dira. Hori bai, guztiek hartuko dute irakurketarako astia. Urte osoko lana dela-eta, zaletasun asko gerorako uzten dira, eta oporretan hartzen da horiek egiteko astia. Era guztietako liburuak aukeratu dituzte; idazle gustukoeneren azken liburua, oporretako lekuarekin zerikusia duena edo lankideek idatzi dutena. Bakoitzak bere arrazoiak azaldu ditu.



Mikel Urdangarin. Abeslaria



Barrualdean jaiotako beste askoren modura, kostaldera joango da oporretara Mikel Urdangarin zornotzarra. Txiki-txikitatik eraman dute bere gurasoek Lekeitiora, eta aurten ere hara joango da Urdangarin. “Nire ustez, Lekeitio da munduko herririk politena, eta hara noan bakoitzean gustu-gustura sentitzen naiz. Amarekin batera etxea alokatu dut udaldirako”. Urte osoan lanean ibili ostean, ondo etortzen dira oporrak eta zer hobeto kostaldeko herri txiki batera joatea baino. “Urtean zehar Gasteizen bizi naiz eta oporretan leku lasaietara joatea gustatzen zait, hirietako presak eta bizimodua alde batera lagata. Gainera, Lekeitiok oroitzapen on-onak ekartzen dizkit. Negu parterako pilak energiaz betetzeko toki aproposa da”. Lekeitiok eta lekeitiarrek haurtzaroko oroitzapenak ekartzen dizkiotela gogora onartu du musikariak. “Oso haurtzaro polita bizi izan nuen eta nire bizitzako zati horretako momentu asko eta asko herri horretan pasatu nituen. Udazkenean argitaratuko dudan diskoan, gainera, erreferentzia egiten diot nire oporretako lekuari”.

Bere Gasteizko koadrilako lagun gehienen antzera, irakurzale amorratua dugu Urdangarin. Azkenaldian, bere disko berriko abestiak egiten dabiltenez, ez dauka tarte handirik literaturarako. Instrumentu eta musikari artean ematen ditu egunak Gasteizko Alde Zaharrean daukaten lokalean. Hori dela-eta, oporretako maletan tarte utziko dio liburu bati baino gehiagori. “Eskuartera ailegatu zaidan azken liburua *Elkar* argitaletxeak kaleratutako Karmele Jaioren *15 Zauri* da, eta berau eramango dut Lekeitiora. Jaioren liburua ipuin txikiz osatua dago, eta beti nobela luzeak barik, noizean behin gustuko dut ipuin txikidun liburuak irakurtzea”. Liburuaren gaineko erreferentzia onak ditu zornotzarrak, eta idazlea bera ere atsegin duenez, ez zaio asko kostatu oporretarako liburu legez *15 Zauri* aukeratzea.

Ernesto Valverde. Athletic-eko entrenatzaile ohia



Berez Gasteizkoa izan arren, bere lana dela-eta Iberiar penintsulako leku askotan bizi izan da Valverde. Azken urte biak Bilbon pasa ditu Athletic-eko lehenengo taldeko entrenatzaile modura, eta aro bati amaiera eman eta berri bati hasiera emateko ilusioarekin, Lezaman aurkitu dugu maletak egiten. Izan ere, entrenatzaile postua laga eta datorren denboraldian zer egin erabakitzeko oporretara joatekotan dago. “Barrualdeko asko eta asko kostaldera joaten dira oporretara, baina ni, aurtengoz behintzat, asko maite dudan mendizerra batera joango naiz: Arabako Toloñora”. Valverdek gogoz hartuko du atsedena; Bilbo aldeko presioetatik urrundu eta familiarekin lasai-lasai egoteko premia daukala esan du. “Toloñora joateko hiru arrazoi handi daude; batetik, ni Arabakoa naiz eta Toloño Araban dago; bestetik, leku lasaia da eta nik lasaitasuna behar dut; eta azkenik, bertako paisaiaren kontraste handiak txunditu egiten nau”, azpimarratu du Txingurri Valverdek.

Oporretan familiarekin eta hurbil-hurbileko lagunekin egoteko asmoa duela esan du entrenatzaile ohiak, eta ez daki irakurketarako asti handirik izango duen. “Urtea gogorra izan da. Presio handia jasaten dugu entrenatzaileok, eta oporrak presio eta estres horietatik ateratzeko erabiliko ditut”. Denboraldian zehar batutako neke guztietatik libratzeko bere idazle kuttunenetako baten liburu sartuko du oporretara eramateko gauzen artean: Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea*. Hori bai, liburuaren erdarazko bertsioa aukeratu du, Valverdek ez daki-eta euskaraz. “Atxagaren liburuak asko gustatzen zaizkit. Batez ere istorioak zelan kontatzen dituen atsegin dut. Atxagaren kontatzeko moduak aspaldi harrapatu ninduen eta bere liburu gehienak irakurriak ditut”.

Tinieblas González. Zine zuzendaria

Gasteizko zinemagile gaztea Madrilen bizi da duela urte batzuk. *Hertzainak* talde mitikoaren abesti batek zioen modura, herriminak jota edo, Gasteiz inguruko baso batera joaten da Tinieblas urtero bere koadrilakoekin. Aurten ere, ez dio hutsik egingo hitzorduari. “Nerabeak ginenetik Gasteiztik hogeit hamar kilometrorra dagoen zingira batera joaten gara lagunak. Ez naiz tokiaren izenarekin gogoratzen, baina lasai-lasaia da eta hurrengo ikasturtea gogoarekin hasteko beharrezkoa izaten dut lasaitasun eta lagun konplizitate hori”. Kanpina, lo egiteko sakua, aste baterako jana, eta rol-jokoak hartu ostean, hiriko zarata eta mugimendutik alde egiten dute Tinieblasek eta lagunak. “Gazte-gaztetatik hasi ginen rol-jokoetan jolasten, eta aitatutako zingiraren inguruak leku apropos-aproposak dira horretan jolasteko. Zuhaitzek, zingirak, basoaren iluntasunak eta isiltasunak jokoan murgiltzen laguntzen du”. Jolasteaz gain, paseoan ere ibiltzen dira. Azken batean, naturarekin harremanetan jartzeko lekua aukeratu du Gonzálezek.



Jolasteko grina inguruarekin uztartzen dute Gasteizko koadrilakoek, eta oporretarako aukeratutako liburuarekin ere berdin egiten du zinemagileak. H. P. Lovecraft-en *Wendigo* liburuak aukeratu du. “Oporretara joaten naizen lekuarekin zerikusi handia dauka liburu honek. *Wendigo*-ren historia XX. mende hasieran gertatzen da eta baso batean kokatua dago. Suaren eta iluntasunaren gaineko abenturak kontatzen dira bertan”. Bere laburmetraieta argumentu modura, istorio ilunak ditu gustuko Tinieblasek. Oporretarako aukeratutako inguruneak, liburuak eta konpainiak hurrengo proiektuetarako lagungarri izango direla uste du. “Urteroko bospasei egunetako egonaldi hau behar-beharrezkoa dut”. Kasu honetan zinemagilearen izenarekin, itxurarekin eta izaerarekin bat egin dute aukeratutako lekuak eta liburuak.

Txaro Arteaga. Emakundeko zuzendaria



Udako oporrak iristear dauden honetan, Txaro Arteagak argi dauka “ez dut dudarik: ni Euskadin geratzen naiz. Ez dago niretzat toki hoberik, eta inork ez dezala pentsatu nire burua txobinistatzat dudarik. Inguruan ditut Aiako Harria eta Oiartzungo bidegorria; eta itsasoa nahi izanez gero, Hendaia, Biarriz edota Donostiako hondartzak”. Izan ere, toki ederrean bizi gara, esku-eskura ditugu mendia eta itsasoa, aukeran. Baina urtean zehar asti gutxi izaten du hurbilekoaz nahi besteko patxadaz gozatzeko, eta uda parte aprobatzen du toki horiek bisitatzeko. Gainera, azken urteotan “barruko” Euskal Herria ezagutzen ari da, batez ere Iparraldeko herriak. “Banan-banan ari gara Pirineo inguruetako herrixkak bisitatzeko, eguneko eskursioak eginez. Eta topikoa badirudi ere, gure inguruan ongi jateko txokoak ez dira falta; beraz, dena konpleto”.

Udarako lekuak pilatu zaizkio Txaro Arteagari, baina baita liburuak ere; esan digu mordoa duela udan irakurtzeko, izan ere, urtean zehar pixkanaka-pixkanaka erakargarriak iruditzen zaizkion liburuak erosten joaten da oporraldietarako. “Liburu horien artean bat aipatzekotan, Dulce Chacón-en *La voz dormida* azpimarratuko nuke, gerra zibilean karzela egondako emakumeen historia kontatzen du liburuak”.

Ana Urrutia. Telebistako aurkezlea



Eguzki amandreari egun onak emateko gogotsu, leihora atzamarrak gurutzatuta ateratzen garen egunotan, askorentzako ezinbesteko amuletu bihurtu da Ana Urrutia. Besteak beste, Euskal Telebistan egunero eguraldia iragartzen digun aurkezle gaztea da bera. Batzuetan pozak eta bestetan disgustuak ematen dizkigu, eta badirudi, nolabait, aisialdia hark manipulatzeko digula, bera ere opor egarriz egon badagoela kontuan izan gabe. Beraz, pantailatik alde egin eta nora ihes egingo lukeen galdetu diogunean, dudarako tarterik laga gabe bizkor erantzun du: “Bizkaia aldera, kostara, eta zehatzago esanda Bakiora. Hala ere, Urdai-baiko edozein txokotan egongo nintzateke gustura. Oporrak des-konektatzeko izan ohi dira, eta ingurune eta paisaia horrek ikaragarri laguntzen dit horretan. Bakea da bertan sentitzen dudana” aitortu du Anak. Askok ezagutzen dute Urrutiak itsaso-arekiko sentitzen duen maitasuna, eta gehien praktikatzen duen kirola surfa dela. Hori kontuan hartuta, ezingo luke beste inora joan. Munduko hainbat tokitan olatuak harrapatzen ibilia bada ere, azkenean etxeko olatuak dira sosegu handiena ematen diotenak.

Gainontzeko lurtar guztion antzera beraz, bere lana dela-eta abantaila edo bentaja apurtxo batekin agian, eguraldiaren berri izan eta martxan jarriko da bera ere. Kresal usainaren atzetik eta itsas labarrekin ametsetan dabil dagoeneko. Itsasoan ibili osteko lasaitasun momentuetarako beti izaten du aldamenean gustuko liburu bat. “Rafael Albertiren *Libro de mar* eramango nuke oporretara. Orokorrean asko gustatzen zait idazle andaluziarraren obra. Eta, erlaxatzeko amesten dudan lekua kontuan hartuta, ezingo nuke beste titulu bat aukeratu oporretarako. Dena lotuta doa, denak dauka zerikusia itsasoarekin”.



Nerea Garmendia. Aktorea



ETB 2ko *Vaya Semanita* programako aktoreak Nafarroa aukeratu du oporretarako leku apropos modura. Eta Nafarroa guztitik leku bakarra aukeratzea erraza izan ez arren, Irunberriko arroi-laren aldeko apustua egin du. “Aurretik ere bertan egonda nago, eta asteroko filmaketetako nekea gainetik kentzeko toki egoki-egokia da. Irunberri lasaia da, eta zelan ez, ederra”. Garmendiak hondartza eta mendia biak ditu gogoko, baina oraingoan mendia aukeratu du. Hala eta guzti ere, ez da edozelako mendia. Irunberrik errekatxoa dauka, udako arratsalde beroetan bainua hartzeko aproposa. “Irunberriko erreka bainua hartzeko modu-modukoa da. Ez da jende askorik egoten, eta intimitatearekin gozatzeko ezagutzen dudan lekurik onenetakoa da”. Azken baten, *Vaya Semanita*-ko aktore guztiak oso ezagunak egin dira. Euskal Herrian ez eze, penintsulako beste hainbat tokitan ere ezagutzen dituzte *Zapping* programa dela-eta. Ondorioz, jende gutxi ibiltzen den tokia aukeratu du Nereak aurtengo oporretarako.

Irakurtzeko Oscar Terolek idatzitako *Todos nacemos vascos* liburua aukeratu du. Liburuak arrakasta handia izan du, eta Euskal Herriatik kanpo ere jende askok irakurri du. Garmendiak oraindik irakurri gabe dauka, eta oporretan hartuko du horretarako astia. “Liburuaren gaineko kritika onak entzun ditut, eta irakurri dutenek gomendatzen dutenez, bera da nik oporretarako aukeratutako irakurgaia”.

Todos nacemos vascos liburua *Vaya Semanita* programako gidoilariekin batera idatzi du Terolek, eta euren umorea atsegin duenez, ziur dago liburua gustukoa izango duela. “Programako ikusleei bezala, aktoreoi ere barre ugari eragiten digute Terolen eta gidoilarien istorioek, eta kuriositate apur bat badaukat jakiteko ea, liburuaren izenburuak dioen legez, denok euskaldun jaiotzen garen”.

**Txomin
L. Aramaio
Kazetaria**

Pertsona izenen idazkera administrazioan

Administrazioetako langileek askotan izaten duten zalantza da pertsonen izen-deiturak nola idatzi behar dituzten dokumentazio ofizialean nahiz bestelakoan. Nortasun Agiriak (aurrerantzean NA) dakarren izena al da balio duen bakarra? Eta hura zein den ez dakigunean? Eta interesatuak bestelakoren bat –hipokoristikoa, laburtua, goitizena...– erabiltzen duenean? Zer egin halakoetan?

Herrialde elebidunean bizi garenez, gainera, eguneroko kontua dugu hori; izan ere, herritar ugari erabiltzen du bere burua izendatzeko NAz bestelako idazkera bat, euskarazkoa eskuarki.

Administrazioaren bulegoetan kontu eta zalantza horiek denak eta gehiago egunero sortu ohi dira, eta horien aurrean era guztietako jarrerak izaten dituzte funtzionarioek.

Zer egin, beraz, halakoetan?

Izenaren jabea norbera da


Uste aski zabaldua da Nortasun Agirian ageri den izena bakarrik erabil daitekeela dokumentazio administratiboan. Ia mitifikazioa iritsi da uste hori, pertsonak ongi identifikatzea segurtasun juridikoaren oinarri-oinarrizko bermea delakoan. Egia da segurtasun juridikoa behar dela jardun administratibo orotan, baina zalantzazkoa da hori bermatzeko bide bakarra –pertsonen identifikazioari dagokionez, noski– NAko izendapena letrarik ere aldatu gabe paper orotan iltzatzea denik. Besteak beste, jende askok –irizpide hori defendatzen duten asko barne– egunerokoan, NAko izenaren sasi-ordezkoak erabili ohi dituelako; esaterako, ekonomiaren beharraz, izen konposatueta akronimoak (“Juanjo”, “Marian” eta halakoak) edo izenaren zati bat bakarrik (“Mikel Gotzon” > “Mikel”, “Miren Arantzazu” > “Arantzazu”) erabiliz.

Pertsonen identifikaziorik zehatzena, ordea, NAren zenbakiak eman diezaguke, izenak berak baino segurtasun handiagoarekin, alegia. Beraz, segurtasun juridiko osoa behar duten dokumentuetan (adibidez, bi aldeen arteko kontratu sinadura batean) nahikoa da NAren zenbakia ere jasotzea, nahasmen-durako arrisku guztiak uxatzeko.

Administrazioa gizartearen bilakaerari so

Bestalde, printzipio demokratiko oinarritzkoenak dio administrazioak gizartearen zerbitzuan egon behar duela. Bada, mintzagai dugun auzi honetan, gure gizartean bilakaera nabaria gertatu da joandako bizpahiru hamarraldi hauetan; beraz, administrazio publikoak bilakaera horri arretaz begiratu eta argi erantzun beharko lioke, arestiko printzipio hori beteko badu.

Garai batean, Espainiako estatuan, izen-deitura ofizial eta onargarri bakarrak gaztelaniazkoak eta gaztelaniazko grafian



idatziak ziren. Alabaina, gaur arras aldatu da egoera hori: alde batetik, pertsona izenari dagokionez, gurasoen borondatea da lege nagusia, eta seme-alabei nahi duten izena eta nahi duten idazkerarekin jar diezaiekete, betiere pertsonaren duintasuna babestuta eta, jakina, hautatu duten hizkuntzaren –gaztelera nahiz euskararen– idazkera arauak errespetatuz. Deiturei dagokionez ere, erregistro zibilean norberaren deitura nahi den grafiarekin jasotzeko aukera dugu guztiok, euskarazko deituren grafia, esaterako, Euskaltzaindiak ontzat emandako grafiaren arabera egokitze eskubide osoarekin. Eskubide hori legeak aitortu duenetik, euskal herritarren artean gero eta gehiago dira izen eta deituren grafia jatorrizko hizkuntzaren eta beren nahiaren arabera egokituta daukatena. Esate baterako, gero eta “Etxeberria”, “Agirre”, “Kortabarria”, “Zabala”, “Ariztegi”... eta tankerako gehiago ikusten dira “Echeverria”, “Aguirre”, “Cortabarría”, “Zavala”, “Aristegui” eta halakoen aldean. Halaber, ponte izenetan ere, gero eta gehiago dira euskal forma normalizatuan –eta, bidenabar, izen bakunarekin– erregistratzen diren haurrak (“Eneko”, “Miren”, “Ander”, “Ane”, “Jon”, “Garazi”, “Joseba”...). Askok dira, baita ere, jatorrizko euskaldun deitura ez izanagatik, Euskaltzaindiak onartutako euskal grafia normalizatua erabiltzen duten herritarrak ere, tildea kenduz esaterako.

Denbora askoan egon da, ordea, euskara administratibotik eta gizarte esparru askotatik kanpo, eta denbora asko beharko da bere leku normalizatua eta finkatua sendotzeko.

Horregatik, joera orokor horrekin batera, bada hainbat jende, batez ere, belaunaldi helduetakoa, bere izen eta deituren grafia jaiotako unean jarri zitzaion bezala eduki nahi duena, duen oinarritzko eskubideari helduz, jakina. Badira, baita ere, izen-deituren idazkera normalizaturako bidearen erdia bakarrik egiten dutenak; horren adibide ditugu “Aristegieta”, “Zubelzu”, “Mugika” edo “Mujika”, “Arantzabal”, “Arzak” edo “Balantzategi” bezalako idazkerak, forma normalizatuan berez “Ariztegieta”, “Zubeltzu”, “Muxika”, “Arantzabal”, “Artzak” edo “Balantzategi” izango lirakeenak.



Normalizazioa

Begi bistakoa denez, egoera guztiz ideala bagenu ez litzateke zalantza handirik sortuko testugintza administratiboan; hau da, erregistro zibileko idazkeren eta herritarrek erabilitakoen artean diferentziarik ez balego, ez genuke arazorik edukiko.

Alde horretatik begiratuta, oso onuragarria izaten da, herritarrek beren burua izendatzeko erabili nahi duten idazkera NAKo-arekin bat ez datorrenean, erregistro zibilera joatea eta kontraesan hori garbitzea. Nire ustez, dugun eskubide horren zabalkundea bultzatu beharko lukete administrazioek, errealitatearen eta legezko egoeraren arteko aldea lehenbailehen murrizt dadin. Baina ez da hala egiten, eta pauso hori ematen duten herritarrek, halabeharrez, paperezko labirinto luze batean murgiltzen dira maiz. Izan ere, auzi honen aurrean oso jarrera desberdinak izaten dituzte administrazio batzuek eta besteez; esate baterako, administrazio zentralak eta udalek.

Honetara iritsita, nire ustez, euskaldunok konplexu handiko herritar lotsati gisa jokatzeko joera izaten dugu askotan, balio handiagoa emanez administrazio maila bati besteari baino. Zergatik izan behar du aldaezinago, adibidez, jabetza erregistroko dokumentu bat pertsona fisikoaren errenta aitopenekoa baino? Edo hauteskunde eroldakoa udal zerga baten eroldakoa baino?

Luzaroan kontraesankorra izango den egoera honetan, beraz, jardun administratibo arruntan bidea eman beharko litzaioke herritarren borondateari, eta herritarren aipamen zuzena egin behar denean, lehenbiziko erreferentziatzat hartu beharko genuke hark berak bere buruari buruz esan diguna. Adibidez, aurretik idatzizko harremanik izan badu, bere idatzian bere burua nola izendatu duen ikusiz, edo edozein motatako agiriren baten eskaera egiten duenean, nola agertu nahi duen galdetuz, ez ia behartuta zuzenean NAKo bertsioa jarritz. Izatez zilegia ez den bezalaxe deitura edo izen baten grafia interesatuaren nahia galdetu ere egin gabe euskaratzea, ez baita inola ere zilegia testuinguru administratibo erabat erdaldunean –halakoak (izan) baitira erregistro zibilak eta justizia administrazioa– eginiko

dokumentu jakin batek herritar baten izendapena horrenbeste baldintzatzea.

Jarrera kontserbadoreek ikur bihurtu nahi izaten duten dokumentu baten aurrean lehentasuna herritarren beraren nahia emanaz gero, azkartu egingo litzateke hizkuntza egoeraren (ez diot derrigorrez euskararena esaten) normalizazioa administrazioan, halako jarrera positibo batek benetakoa den arazo bat oharkabe bezala igarotzen utziko ez lukeelako, nagikeriak eta inertiak astinduko lituzkeelako eta erabakiak hartzera behartuko lukeelako.

Aurreko lerroetan idatzitako guztia harreman administratibo arruntei begira esana da. Jakina, testugintza administratiboan jaso ohi dira, baita ere, herritarren eta administrazioaren arteko harreman arrunt eta pragmatikoetatik kanpoko bestelako dokumentuak, zabalkunde historikokoak, txosten teknikoetan aipatu beharreko aurrekariak, eta abar. Halakoetarako, korporazio bakoitzak irizpide zehatzak edukitzea komeni da, baina hori beste idazlan baterako gaia da, zalantzarik gabe. Hurrengo alearen batean polikiago aztertzeke geratzen da oraingoz, beraz.

Gai honen inguruko irizpide akademikoak bi argitalpenetan bildu ditu Euskaltzaindiak:

- *Euskal Izendegia* (2001, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia)
- *Euskal Deituren Izendegia* (1998, Espainiako Justizia Ministerioa)

Joseba Erkizia
Gipuzkoako Foru Aldundiko itzultzailea

Puntuazio-zeinuei dagozkien tarteak¹

Puntuazio-zeinuak erabiltzeko orduan, duda egiten dugu askotan: tarterik utzi behar dugu zeinuaren aurretik? Eta ondoren? Nola idazten da: %4 edo % 4? 3+4=7 edo 3 + 4 = 7? Arazo horiek konpontzeko *Europako Batasunaren erakunde arteko estilo-liburua*-n proposatutakoetan oinarritu gara.

IZENA	ZEINUA	TARTEA, AURRETIK	TARTEA, ONDOREN	ADIBIDEA
Puntu eta koma	;	Ez	Bai	xx; xx
Puntua	.	Ez	Bai	xx. Xx
Bi puntuak	:	Ez	Bai	xx: xx
Bi puntuak (orduak)	:	Ez	Ez	11:11
Koma	,	Ez	Bai	xx, xx
Koma (dezimalak)	,	Ez	Ez	11,11
Harridura	!	Ez	Bai	xx! Xx
Galdera	?	Ez	Bai	xx? Xx
Etendura puntuak	...	Ez	Bai	xx... Xx
Marratxoak	-	Ez	Ez	xx-xx
Marra (irekitzeko)	–	Bai	Ez	xx –xxxx
Marra (ixteko)	–	Ez	Bai	xxxx– xx
Marra zehar	/	Ez/Bai	Ez/Bai	xx/xx (hitz bakunen artean) xx xx / xx xx (hitz multzoen artean)
Parentesia (irekitzeko)	(Bai	Ez	xx (xxxx
Parentesia (ixteko))	Ez	Bai	xxxx) xx
Kortxetea (irekitzeko)	[Bai	Ez	xx [xxxx
Kortxetea (ixteko)]	Ez	Bai	xxxx] xx
Kakotxa (irekitzeko)	“	Bai	Ez	xx “xxxx
Kakotxa (ixteko)	”	Ez	Bai	xxxx” xx
Asteriskoa (hitzaren aurretik)	*	Bai	Ez	xx *xxxx
Asteriskoa (hitzaren atzetik)	*	Ez	Bai	xxxx* xx
Ehuneakoak	%	Bai	Ez	xx %11
Aritmetikako sinboloak	+, -, x, ±, :, =, ≠	Bai	Bai	11 + 11 11 – 11
Monetak	£, €, \$	Bai	Bai	11 € xx
Graduak	°	Ez	Bai	11° xx
A bildua	@	Ez	Ez	xx@xx

IVAPeko Administrazio Hizkeraren Atala

Jose Mari Arakama, Aintzane Arrieta, Joseba Lozano, Josemari Robles, Rosa Mari Urrutia

¹ Taula liburu honetatik atera dugu: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *IVAPeko estilo-liburua*. Vitoria-Gasteiz: IVAP, 2005.

MZUNGU, GIMME MY MONEY!

Pasa den asteartean, XXL labezomorroen tabernan yuka eta matooke afaldu eta nire lankide afrikar berriei agur esan ondoren, Sorotitik etxerantz abiatu nintzen, herritik pixka bat urruti dagoena, Ugandako lurrezko bide tipikoan zehar, bat-batean itzelezko ekaitz tropikala botatzen hasi zenean. Euri-sasoian gaude, eta hamar segundotara zeharo blai eginda nengoen, arropa tantaka eta ilea buruan zapalduta. Gaua zen, eta horrek hemen esan nahi du fotoi trixte bat ere ez zegoela inon ere. Nire inguruan dena beltza zen. Ordura arte txabola urrun batetako argi xume batek gidatuta nenbilen oinez, baina lehenengo tximistarekin batera argi hura desagertu egin zen. Begiak itxita eta gainera lotuta edukitzea bezala zen. Lurrezko bide tipikoa laster lokatz igarogaitz tipiko bihurtu zen, eta ni geroz eta putzu dentsoagotan eta sakonagotan sartuz nindoan, ilunpetan, irrist egin eta erori nintzen arte. Zeharo desorientatuta, ezer ere ikusi ezinik, dilubioaren erdian txankleta bat galdu nuen txokolate lodizko taza erraldoi antzeko batean. Tximistargiekin bilatzen saiatu nintzen, belauniko, eskuak lokatzetan sartuta, ukondoetaraino. Ezinezkoa izan zen, eta handik gutxira amore eman nuen. Leporaino lohituta, bidearen hurrengo metroak tximisten argiak lagunduta ikustea erabaki nuen, tximistargiak horizontetik horizontera zerua bitan banatzen zuen unean lurra memorizatuz, eta era horretan, hamar metrotik hamar metrora, iluntasunean aurrera egin etxera iritsi ahal izateko. Negar egin nuela uste dut, baina ezin izango nuke ziurtatu. Aurpegia bustita eta lokaztuta izanda ezin nuen bereizi. Eta trumoiaren zaratak beldurrez eta dardarka uzten ninduen uneoro.

Eta arrastaka nenbilen lokatz-ibaiaren bi alboetan, oihan ekuatorialaren dentsitatea usaindu eta sumatzen nuen, gaurik beltzena baino beltzagoa, bizitzaz irakiten, milioika begi ñimiño barne hartuta, iluntasunera egokিতා milaka eta milaka urtetan eboluzionatu ondoren, gizaki txuri itu tipikoa ikusten ari zirela, hau da, ni, errenka eta estropezuka egiten ari zen muzungua, eboluzionatu gabeko aurrehominidoa bailitzairen besoak aurreratuta zebilela, *ostia* eta *joder* oihukatuz euri-jasaren azpian. Hirugarren ererikoan lurra mastekatu eta tu egin nuen, eta eskua zauritu, eta zauritik 18.000 gaixotasun tropikal ezberdin sartu zitzaizkidan, eta horietako batzuk Bartzelonan jarritako dozenaka txertoek ez zituzten neutralizatu, zauria ondoren gaiztotu baitzitzaidan. Euria gogotik eta gel-ditu gabe, ez dakit zenbat tximisten ondoren, arbola eta harri

ikusezinak ukituta, azkenik etxera iritsi nintzen, bertan argirik eta ur korronterik ez zegoela, jakina, lur-jota sentituta eta amesgaiztoetako izaki bilakatuta. Kanpoan biluzi nintzen, etxera sartu aurretik, gela ez zikintzeko, euri-zaparrada epelean dutxa hartu, arropa erabiltezi-na lokatzetan betirako baztertu, etxean sartu, zauriak kandelaren argitan garbitu, eta etzalekuan oheratu nintzen, artean duintasun-arrastorik gabe, koltxoi ustel eta hezearen barrutik kolore eta tamaina guztietako intsektuak, armiarmak eta larbak ateratzen zirene unen berean, niri ongietorria emanez eta nire gorputzean kokatuz gauero bezala nitaz elikatzeko.

Eta idazten ari naizen momentu honetan bertan konturatzen ari naitenez, inoiz ere ez nuen faltan bota Gasteizko nire etxea, edo nire dutxa, edo nire arropa garbia. Afrikan kooperante gisa hainbat hilabete eman eta gero, seinale bat dela susmatzen dut. Agian laster muzungu izateari utziko diot eta kumamez hitz egiten hasiko naiz, eta ziurrenik mendietako Karamajongekin bat egingo dut, Bangi eta Itesoeren kontra hiltzeraino borrokatzeko, horiek txuri nazkagarrien lagunak badirelako.

Eta momentu horretatik aurrera, txabola, estolda eta zaborrezko azpimundu honetan orain askok eta askok oihukatzen didatena esango dut nik ere bai, ozenki, aihotza astinduta eta kopeta ilunduta, lapurtutakoa buelta diezaguzuen behingoz:

MZUNGU, GIMME MY MONEY!

Luis Elizondo
Idazlea

Zer iritzi duzu irakastereduen emaitzei buruz?

Euskal Autonomia Erkidegoko 16 urteko ikasleen euskara maila neurtu nahi izan du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, eta, horretarako, *Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak* (ISEI-IVEI) euskara-proba bat diseinatu du, Hizkuntzen Erreferentziako Europar Markoaren B2 mailari dagokiona: ingeleseko *First Certificate* azterketaren parekoa eta *Euskararen Gaitasun Agiria* baino maila apalagokoa. Emaitzen arabera, A ereduaren ikasten ari den 16 urteko ikasle bakar batek ere ez du euskaraz normaltasunez komunikatzeko gaitasunik; B ereduko ikasleen artean bakarrik %33k du komunikatzeko gaitasuna; eta D eredukoaren artean %68k. Iritzi eta konponbide eske, adituengana jo dugu.



Josu Sierra

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko erakundearen zuzendaria (ISEI-IVEI)

“Ni ados nago ereduaren erreformarekin edo deuseztearekin, baldin eta DBH amaierarako ikasleriak zenbat euskara eta zenbat gaztelania ikasi behar duen finkatzen badugu”.

Orain dela gutxi aurkeztu ditugu 4. DBHko B eta D ereduaren ikasleen emaitzak. Ebaluazio honen berritasunik handiena Hizkuntzen Erreferentziako Europar Markoaren B2 maila neurtzea da (edo ALTEren 3. maila). Ez dira beraz, orain arte bezala, ereduaren artean konparatzen emaitzak, baizik eta kanpoko erreferente batekin. B2 mailak ez du hizkuntzaren maila xume bat adierazten baizik eta, kasu honetan, euskaraz ondo moldatzeko maila bat: jatorrizko hiztunekin mintzatzeko, literatura irakurtzeko, txostenak idazteko edota filmak ikusteko.

Lortutako emaitzek ez naute batere harritu, badakidalako zer nolako euskara darabilten gure 4. DBHko ikasle erdaldunek eta baita eskaldun askok ere.

Ebaluazio hau premiazkoa zen gure hezkuntza sisteman arrazoi hauengatik: 1982ko normalkuntza-legeak oso konprezio gutxiko helburua markatzen zuen hizkuntzen ikaskuntzarako (bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina), baina gaurko *curricula* ere definizio gutxikoak dira eskoletan hizkuntza arloan lortu beharreko helburuez. Lortu beharreko maila finkatu behar zen, beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ustez. Horra hor gure proposamena: B2 maila DBH amaieran.

Bestalde, asko hitz egiten da irakastereduak erreformatzeko beharraz, baina, nire ustez, hori ez da eztabaidarrik inportantea baizik eta zein den ikasleek lortu behar duten maila. Ni ados nago ereduaren erreformarekin edo deuseztearekin, baldin eta DBH amaierarako ikasleriak zenbat euskara eta zenbat gaztelania ikasi behar duen finkatzen badugu. Gero gerokoak. Hor behar dugu oinarritzko adostasuna, irakastereduak tresnak besterik ez dira, baina bete beharreko helburua berdina izan behar da denentzat.

Honelako hizkuntza-zertifikazio bat nahi duen orori eskaintzea oso positiboa litzateke ikasle eta irakasleentzat, motibagarria

eta argigarria. Baina, eskolaren eskuetan bakarrik uztea euskararen berreskurapenaren ardura ez da bidezkoa, aspalditik dakigunez. Eskolak ezin du hizkuntza maila mugatu bat besterik ziurtatu; irakas-sistema osoak egiten dituen ahalegin handiak eginda ere, emaitzak mugatua izaten jarraituko du: beti hobetu daiteke, baina miraririk ez dago. Ikasleriak ez du, askotan, euskara errealean bizitzeko aukerarik aurkitzen eskolan, eta jatorrizko hiztunekiko interakzioa ere gutxi batzuen aukerara besterik ez da izaten. Baldintza horietan lortu daitekeen hizkuntza maila mugatua da nahitaez, ez gaitezen engainatu. Ikastetxe ingeles edo alemanetan ere badakite udan ikasleak dagokien herrialdeetako familietara joatea beharrezkoa dela hizkuntza hobeto menderatzeko. Gu ez gara espezialak. Gizarteak jakin behar du zer nahi duen eta zer egin behar den hori lortzeko, burua lurpean sartu gabe.

Ana Eizagirre

Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko (EHIGE) koordinatzailea

“Euskara eskola-ordutegitik kanpo bultzatzen duten pertsona, erakunde eta abarrei laguntzeko ordua da, beraiek ari baitira euskara familian eta gizartearen komunikatzeko hizkuntza bihurtzen”.



Egindako proben emaitzak ezin dira estatistikoki bakarrik neurtu, bestelako faktore hauek ere kontuan hartu beharko genituzke:

Proba ez dago derrigorrezko hezkuntza sistemari egokituta. Emaitzetan eragina eduki dezaketen aldagai garrantzitsuak daude: zer nolako presentzia daukan euskarak ikaslearen inguruan, nolako eskolatze-hasiera izan duen, ikastetxean irakaskuntzarako hizkuntza euskara den edo ez.

A ereduaren duten ikastetxeetan bestelako probetan emaitza onak izan badira ere, honetan proba pilotua ere ez da gainditu. Beraz, gizarte osoak dakiena baieztatu egin da: A ereduak euskarara hurbiltzeko ere ez du balio.

Gaur egun, Eskola Publikoak D ereduko hiru ikasletik bi eskolatzen ditu, hau da, euskaraz ikasten ari den gehiengo hartzen du eta hizkuntza normalizazioa bermatzen du gizarte mailan. Hala ere, eredu hori eskaintzen ez duten ikastetxeak

ere badira oraindik, eta horrek areagotu egiten ditu ikastetxe horietako ikasleek etorkizunean izan ditzaketen desberdintasunak.

Adierazitako proposamen askorekin bat nator: kalitatea hobetzea, hizkuntza errefortzua, normalizaziorako benetako neurriak bilatzea, irakasleen prestakuntza hobea... Baina benetan behar duguna hau da: ereduak desagertzea, elebitasuna-eleaniztasuna bermatuko duten ikastetxe proiektuak, gizartearen partehartze handiagoa, erakunde eta administrazioen apustu garbia, gizarte eta indar politiko guztien konpromiso handiagoa, normalizaziorako bideak...

Ereduen garaia bukatu egin da EAEn, legeak berrikusi eta konpromisoak hartzeko garaia da. Euskara eskola-ordutegitik kanpo bultzatzen duten pertsona, erakunde eta abarrei laguntzeko ordua da, beraiek ari baitira euskara familian eta gizartearen komunikatzeko hizkuntza bihurtzen.



Javier Nogales

CCOO-Irakaskuntzako idazkari nagusia

“1983an finkatutako ereduak aztertu behar ditugu berriz”.

Argitaratu berri diren emaitzak ikusita, argi eta garbi esan behar da ez dela bete duela 23 urte jarritako helburua; alegia, Euskararen Normalkuntza Legearen (1982ko azaroaren 24koa) 17. artikuluan ezarritakoa. Arra-

zoiak? Era askotako arrazoiak egon dira tartean. Esaterako, beharbada, ez dira neurri egokiak erabili, Derrigorrezko Hezkuntza amaitzerako ikasleak bi hizkuntza ofizialetan praktikan ondo samar molda daitezten, eta kalean ere euskara erabil dezaten. Beharbada, orduan jarri zen helburua gehiegizkoa zen abiapuntu hartarako. Beharbada, gizartea eta ikasleak moldatuz doazela, eta errealitatea (immigrazioa, esaterako) etengabe aldatzen dela jakinda, pentsatu behar da helburuak ezin direla egun batetik bestera lortu, eta epe luzeagoak jarri behar direla. Beharbada, eskola ez da ondo txertatzen gizartearen barruan, eta askotan ez du zerikusi handirik inguruko egoera soziolinguistikorekin. Beharbada, irakasleen hizkuntza-gaitasuna ez da nahi gure bezain ona, eta, beraz, horrekin batera, zalantza jarri behar da ea benetan egokiak izan ote diren irakasleak euskalduntzeko eta alfabetatzeko orain arte erabili diren jarraibideak. Beharbada, beste arrazoi asko ere izan dira tartean...

Nolanahi den ere, kontua ez da orain errudun edo arduradun bila hastea, badakigu-eta zeinek duen ardura politikoa eta hezkuntzako. Kontua da eztabaidan hastea, garbi, zintzo, askatasunez, taburik gabe, aurreiritziz betetako estigmatizazioak alde batera utzita. Gure ustez, konbentzitura daudenen borondate ona garrantzitsua bada ere, askoz ere beharrezkoagoa da –nahitaezkoa– konbentzitura ez daudenen enpatia gureganatzea. Beren sinpatia lortu behar dugu, eta horiek ere euskararen mundura ekarri behar ditugu, eskolaren bitartez, bai, baina euskal mundu honen ikuspegi atseginagoa emanda. Gehientzat euskararen mundua oso planteamendu politiko zehatzei lotuta dago, eta hori oso oztopo handia da, gaindiezina askotan, euskara behar bezala garatzeko, eta, beraz, gizartea batuagoa eta trinkoagoa izateko; horixe da-eta azken batean, elkarrekin bizitzeko daukagun marko honek –Autonomia-estatutuak– agintzen diguna. Hor esaten da gizarte hau elebiduna dela, hor finkatzen da hizkuntzen ofizialtasuna, eta hor ezartzen dira, Euskal Eskola Publikoaren Legean ikus daite-

keenez, euskal hezkuntza-sistemaren helburuak, lurraldeetako aniztasun soziolinguistikoa errespetatuta.

Ildo horretatik, beraz, urratutako arrazoi-bide horiek guztiak ikusita, agerian geratzen da beharrezkoa dela orain arte egindakoak hausnarketa sakon-sakona egitea, eta berriz ere barru-barrutik aztertzea, erabilitako neurriez gainera, helburuak, estrategiak eta epeak. Egia esanda, gorago aipatu dugun legeak ez du inolako denbora-mugarik jartzen. Beraz, oraindik badugu aukera. Arazo honi konponbidea aurkitu ahal izateko, behar-beharrezkoa da elebitasuna izatea azken-azken helburua guztiontzat.

Lan handia dugu eginkizun; besteak beste, 1983an finkatutako ereduak aztertu behar ditugu berriz, eta elebitasun-eredua ezartzeko bidean aurrera egin behar dugu, betiere, legean guztiontzat jasotako helburuak aintzat hartuta; onartu behar da “hizkuntza murgilketa”z ere eztabaidatu daitekeela; ikaslearen ama hizkuntza ere kontuan hartu behar da, eta ikastetxearen inguruko egoera soziolinguistikoa ere bai; horrekin batera, irakasleen hizkuntza gaitasuna hobetu eta ikasleen ikasketa-estrategiak ere indartu egin behar dira. Bai, zalantzarik gabe, badugu, bai, lana.

STEE-EILAS



“Behingoz hezkuntzako eragile guztiei parte hartzeko aukera ematea eskertuko genuke”.

Agerian geratu da hainbat erakundek aspalditik salatzen ari garena: A eredurik onenak ere ez du legea betetzen. B ereduetan emaitza hobeak agertu dira, (%32,6k gainditu du proba). Eta, D ereduak da legeak ezarritako helburura gehien hurbildu dena: ikasleen %68k gainditu du proba.

Hizkuntza ereduak aztertuta, txostenaren egileek, ikerketa honen lagina hartuta, beste aldagai batzuren eragina neurtzeko aprobe txatu dute. (Esan behar da emaitza hauek ezin zaizkiola automatikoki aplikatu ikasleria osoari, lagina ereduaren adierazgarria soilik baita, eta ez da familia hizkuntzaren edota emaitza akademikoaren arabera hautatu).

Hezkuntza sistematik at datozkigu euskara ikastearen eragin handia izango duten hainbat faktore: senitartean zenbat eta nola erabiltzen den euskara, ikaslearen udalerriko euskaldunen ehunekoak, generoak eragindako ezberdintasuna, edota gurasoen ikasketa maila, besteak beste; faktore horiek alde esanguratsua sortarazi dituzte ikasleen euskara mailan. Herri edo hiriaren tamainak, berriz, ez du eragin handirik arlo honetan.

Hezkuntza sistema barneko korrelazioak ere badira, hau da, ikasketetan aurrera egingo dutela uste dutenek emaitza hobeak izan dituzte proba honetan, eta, errepikatzaileek, aldiz, kaskarragoak. Emaitzak sarearen arabera ere aztertu dira: “Ikastetxe publikoek emaitza hobeagoak atera dituzte hitzartuek baino”.

Datu horiek ikusita, eta kontuan hartuz D ereduko ikasleen %72 ikastetxe publikoetan dagoela, hezkuntza sistemaren euskalduntzea gaur egun nondik pasatzen den argi ikusten dugu guk. Beste agente batzuek, berriz, horien artean gure sailburua izandakoak, behin eta berriro lotzen dute euskararen irakaskuntza beste sareko ikastetxeekin, errealitateak behin eta berriro adierazten duenari bizkarra emanez.

Hezkuntza Sailak iragarri berri du hizkuntza sistemaren inguruko eztabaida zabalduko dela. Behingoz hezkuntzako eragile guztiei parte hartzeko aukera ematea eskertuko genuke, orain arte egindako eztabaidetan Administrazioarekiko arlo politiko eta interes estrategikoetan bat etorri direnak soilik izan baitira gonbidatuak.



Koldo Saratxaga, Irizar enpresako zuzendaria

“Gure proiektuaren oinarri-oinarrian taldean lan egiten duten pertsonak daude”

Ez du “enpresa” hitza erabiltzen, nahiago du “proiektua”z hitz egin. “Langile” hitza baino, nahiago du “pertsona” hitza. 1992. urtean Irizar enpresaren gidaritza hartu zuenetik, goitik beherako iraultza hasi zuen Koldo Saratxagak honen barne egituraren. Galerak zituela hartu zuen Irizar, eta, egun, gure herriko enpresa errentagarri eta sarituenen artean dago. Zein da Irizarren sekretua? Saratxagak dioenez, proiektuaren oinarrian pertsonak izatea, ardura denen artean banatzea eta lan-taldearen filosofia jarraitzea. Orain, 58 urterekin, Irizar utzi eta erretiratu edo, agian, beste nonbait hasiko da lanean.


Kudeaketa eta barne-egitura aldetik enpresa-eredu bihurtu da Irizar zuzendaritzan zaudenetik. Langileak enpresarekin identifikatu eta honen parte sentitzea omen da Irizarren filoso-fiaren ardatza. Nola lortzen da identifikazio hori eta zer tresna erabili dituzue azken urteetan enpresa-eredu bilakatzeke?

Gure proiektuaren oinarri-oinarrian taldean lan egiten duten pertsonak daude. Komunikazioa, askatasuna, koopera-zioa eta ardura dira proiektuaren ardatzak. Pertsonengan oinarritutako proiektu bat nahi dugu; proiektu horretan askatasuna eta komunikazioa lantzeaz gain, ardurak bana-tu egiten dira, eta horrek bidea ematen digu enpresa gero eta indartsuagoa izateko eta lanpostuak sortzeko. Kontzep-tu hau funtsezkoa da gure lan egiteko modua ulertzeko eta gure arteko harremana nolakoa den aditzeko. Hamar urte baino gehiago egin ditugu piramide itxuradun egiturarik gabe. Gurean ez dago ordutegi finkorik, ezta buruzagi edo agintaririk ere... Bakoitzak badaki zeintzuk diren bere ardurak, eta hartzen diren erabakietan guztiok dugu parte. Taldeka lan egiten dugu, eta bezeroa da gure helmuga. Hori da gure lan egiteko modua.

Zer funtzio du komunikazioak enpresan? Eta, ildo honetatik, nola bideratzen duzue Irizarren kanpo zein barne komunikazioa?

Gurean komunikazioa funtsezkoa da. Gure erreda erraztu eta ahalbidetzen duen tresna da komunikazioa. Guztion eskura dago informazioa. Arduren banaketarekin batera, komunikazioa da gure helburuak betetzeko ezinbesteko tresna. Lidergoa banatuta dago gure proiektuan, eta taldeetan banatutako lanak ez du zentzurik, komunikazio maila oso altua ez bada.

Komunikazioarekin batera, askatasunari ere garrantzia handia ematen diozue. Esan duzun




bezala, ez dago ordutegi finkorik, adibidez. Malgutasun handiarekin jokatzen duzue.

Irizar proiektuko pertsona guztiei galdetzen diegunean zer ezin den galdu proiektu honetan, aipatzen den lehenengo ezaugarria askatasuna da. Zortzi urte dira inork fitxatu behar ez duela, baina hamar urte dira, baita ere, aparteko ordurik kontuan hartzen ez dela. Beraz, askatasunaren eta arduraren arteko oreka oso garrantzitsua da gure proiektu honetan.

Arduren banaketari eta organigramari dagokienez, eredu klasikotik ihes egiten duzue. Nola banatu dituzue ardurak eta zer irizpide erabili dituzue?

Gure organigramak badu zerikusirik merkatu orokor bati eta bezero jakin batzuei erantzuteko behararekin. Argi eduki behar dugu zein den gure lehentasuna, hau da, pertsonen ondoren, bezeroa dela, eta ez buruzagiak edo nagusiak. Ez daukagu departamenturik. Uste dugu erdibanatzeak, hesiak altxatzeak eta atalak sortzeak bezeroarengandik urruntzen gaituela. Lan-taldearen autokudeaketan eta norberak antolatutako kaosean dago oinarrituta gure egitura. Bezeroari begira beti.

“Askatasunaren eta arduraren arteko oreka oso garrantzitsua da gure proiektu honetan”



Langileek enpresarekin duten identifikazioaz gain, prestakuntzak ere izango du garrantzi handia, ezta?

Gure lan-orduen %4 eskaintzen diogu ideiak eta arazoak trukatzeari, hau da, aukerak bilatzeari. Etengabe gaude esperientzia berrietan sartuta. Esperientzia berriek ezagutza sorrarazten dute. Aldiz, akatsak egiteko aukerarik ematen ez dizun prestakuntzak, hau da, esperientziarik gabeko prestakuntzak, ez du ezagutzarik sortzen.

Ezinbestekoa da langileen lan-baldintzak ongi zainetzea?

Jakina! Baina are gehiago, lan-baldintza horiek badira proiektuaren oinarria. Bezeroak baino askoz gehiago mimatu behar dira langileak.

Kudeaketa eta barne antolamenduari begira, zure ustez, zeintzuk dira gaur egungo enpresek egiten dituzten akats nagusienak?

Bada, akatsik nagusia, nire ustez, egitura tradizionaletan oinarritzea da. Kudeatzeak esan nahi du aldatzea, kontrolatzea, epe laburrera begiratzea, presakoari erantzutea bakarrik. Liderra izateak, berriz, berritzea esan nahi du, askatasun eremuak sortzea, epe luzera begiratzea eta, ondorioz, garrantzitsua den horretan oinarritzea zure eginbeharra. Nire ustez, guztiz beharrezkoa da egitura eta harremanetan aldaketak egitea.

Zuk ondo dakizu zer den enpresa batean sartu eta goitik behera eraldatzea. Nondik hasi behar da enpresa bat eraberritzen? Hobe poliki-poliki egitea, edo iraultza moduko bat behar da?

Biltzarren bitartez egin behar da, proiektu bat konpartituta. Pertsona guztiek parte hartu behar dute proiektu horretan, eta, guztien artean lortuko dugu arrakasta.

Sari asko jaso ditu Irizarrek. Zer balio ematen diozu sari hauei? Kanpo-irudia hobetzeko tresnak baino zerbait gehiago al dira?

Kanpoko errekonozimendua sekula ere ez da gure helburuen artean egon, baina, hala ere, oso gustura hartzen ditugu, mundu kompetitibo honetan kanpoko balorazioa lortzen duzulako. Iru-diari dagokionez, gizartean eta merkatuan dugun tokia lortzen lagundu digute.

Etorkizunera begiratzen duen enpresa zaretela kontuan izanda, zein da Irizarrek emango duen hurrengo urratsa?


Etorkizunak zer ekarriko ezin da jakin, eta ez gara planifikazioaren aldekoak. Hala eta guztiz ere, merkatuak eskaintzen dizkigun aukera guztiei begira gaude. Nire ustez, garrantzitsuagoa da zehaztea dauden aukeren artean zeintzuk diren interesgarriak, hainbeste aukeraren bila ibiltzea baino.

Jazza edo sinfonia



Luxio Ugartek Koldo Saratxagari egindako elkarrizketa luze batean dago oinarrituta *¿Sinfonía o jazz? Koldo Saratxaga y el modelo Irizar* liburua (Granica editoriala). Bertan puntuz puntu azaltzen du Saratxagak nola aldatu zuen goitik behera Irizarreko egitura eta nolako kudeaketa egitura duten gaur egun enpresan. Musikarekin alderatuz, enpresetako egitura klasikoak sinfoniekin parekatzen ditu; bera, aldiz, jazz musikarekin antz handia duen enpresa egituren alde agertzen da. Piramide itxuradun enpresen egitura ereduak alboratu eta lan-taldeetan oinarritutako egitura horizontala du gogoko. Azken hau da Irizarren ezarri zuen egitura, eta, honi esker jaso ditu hainbat sari. *Urrezko Q* saria jaso zuen Euskal Herriko lehen enpresa izan zen 1999. urtean; Eusko Jaurlaritzak emandako *Euskal Enpresari Onenari* saria jaso zuen Koldo Saratxagak 2000. urtean; *Mundo Empresarial Europeo* aldizkariak emandako *Euskal Herriko Enpresa Onena* Saria jaso zuen 2001ean... Eta hauekin batera hainbat sari eta aipamen lortu ditu bai Euskal Herrian bai nazioartean.


Karmele Jaio
Kazetaria



Ekilikua. Euskal sinonimoen ahozko bilduma

Alzibar, Idoia
 Labayru Ikastegia, Bizkaia Irratia, Bilbao Bizkaia
 Kutxa Fundazioa
 Bilbao, 2004
 188 or.

Heri hizkeran galtzeko zorian zeuden berbak berreskuratu nahian, Bizkaia Irratiak lehiaketa bat jarri zuen abian orain zortzi bat urte, *Ekilikua* izenekoa. Gauza bera izendatzeko, herritarrek hitz desberdin asko erabiltzen dituzte, eta, hain zuzen ere, hitz horiek guztiak jaso nahi izan ziren: baseri girokoak, itsasaldekoak, nagusiengandik jasotakoak... Gero, Labayru Ikastegiak irratsaioan bildutakoa hartu eta lantzeko ardura hartu zuen. Lan horren emaitza dugu gaurko liburu hau. Bizkaiko hainbat eta hainbat herritako hizkeretatik jasotako hitz biziak eta esanguraz beteak biltzen ditu.




Esparru sozioekonomikoan euskara biziberritu eta hizkuntza-normalizazioarako hurbilpen sistematikoagoa eta eraginkorragoa izateko irizpideak eta estrategiak

Crterios y estrategias para la promoción del uso del euskera en el ámbito socioeconómico y para un acercamiento más sistemático y eficaz a la normalización lingüística

Euskararen Aholku Batzordea
 Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
 Vitoria-Gasteiz, 2005
 82 or. / 82 or.


Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da herritarrei euskaraz bizitzeko aukerak bermatzea. Horretarako behar diren hizkuntza-politikako neurriak bultzatzen ditu. Esparru sozioekonomikoak bete-betean eragiten du gure bizimoduan, eta bereziki zaindu beharreko arloa da: eskola-munduaren irtenbide naturala da, heldu-aroko erabileraren eremu garrantzitsua da, eta gainerako alorretan lortutakoa sendotu dezake. Euskararen Aholku Batzordeak, enpresa arloan egindako azterlanetan oinarrituz, lan-lerro nagusiak zehazten ditu argitalpen berri honetan.



Las herramientas del directivo

Luecke, Richard
 Itzultzailea: Castilla, Juan
 Deusto
 Barcelona, 2005
 341 or.

Oso modu praktikoa azaltzen ditu enpresa bat aurrera ateratzeko garatu behar diren gaitasunak. Hiru atal nagusi ditu: lehenengoan helburuak nola zehaztu, langileak nola kontratatu, nola delegatu... aztertzen du egileak; bigarrenan, errendimendua hobetzeko estrategiak (prestatuntza eta ebaluazioa), krisiei aurre egiteko moduak, batera lan egiteko bideak... azaltzen dira; eta, hirugarrenean, ekonomia arloan nahitaez menperatu beharreko gaiak ditugu: aurrekontuak, balantze orokorrak interpretatzeko gaitasuna, barne errendimendu tasa... Kapitulu bakoitzaren bukaeran, esandakoaren laburpentxo bat dakar, eta, esaten dena hobeto ulertzeko, glosario bat.



Euskara eta ikas-estiloak

Pikabea, Iñaki
 Erein
 Donostia, 2004
 102 or.

Ikasi duzu ikasten? Hau da, ikasi ahal izateko beharrezkoak diren ezagutzak eta trebetasunak eskuratu dituzu? Ikasteko modu edo estilo desberdinak ditugu, eta denok erabiltzen ditugu estrategia batzuk hobeto, azkarrago eta egokiago, askotan konturatu ere egin gabe. Irakasleak ere, nahitaez, gelan gogokoago izango ditu estrategia batzuk besteak baino, berak duen ikas-estiloaren arabera. Eta horixe dago koska: irakaslearen jardura ikasle batzuentzat lagungarri izango da, ikas-estiloan bat datozelako; beste batzuei, ordea, zail egingo zaie irakasleak "nahi" duen modu horretan ikastea. Bientzat da komenigarri ikasteko moduak aztertu eta lantzea: irakasleentzat, gelan arrakasta izateko, eta ikasleentzat, edozein estilotan eroso aritzeko.

Helduekin lan horretan hasteko materiala eskaintzen digu liburu honek. Bi atal ditu: lehenengoan argibide teorikoak aurkituko dituzu; eta, bigarrenan, lau ikas-estilo lantzeko ariketak, euskara ikasteko egokiak izan daitezkeenak. Ariketa-ereduak, bereziki, mintzamina lantzeko dira, eta urrats guztietarako baliatuko zaizkizu, moldaketa egokiak eginez gero.

‘Hiru eta erdigarren’ karlistada

1876ko karlistada erabateko porrotarekin amaitu zen Karlos VII.arentzat. 15.000 lagunek zeharkatu zuten muga Nafarroan eta Katalunian, eta asko Frantzian geratu ziren Espainiara itzultzeko beldurrez. Erbesteratuek matxinadaren sugarra piztuta zuten oraindik, erregegaiaren ordezkariekin loturak estutuz, armak erosiz eta ezkutatuz eta, zenbait kasutan, muga zeharkatuz erasoak burutzeko. Baionan eta Donibane Lohizunen bizi ziren karlista euskaldunek zeregin garrantzitsua izan zuten lan horietan. Giro nahasia bizi zen garai hartan, eta horren lekuko dugu behin baino gehiagotan karlistek eta errepublikarrek bat egin zutela, Alfontso XII.aren erregetza bertan behera uzteko. Foruen deuseztape-nak eta derrigorrezko soldadutzaren aurkako giroak (1877) matxinada berri bat iragartzen bazuten ere, ez zen horrelakorik gertatu. Eliza Katolikoko gotzainek Alfontso erregearen aldeko apustu garbia egin zuten; eta 1872an Karlosen alde izandako buruzagi askok 1882an bat egin zuten gotzainen jarraitarekin edota, erregegai karlistaren bizitza pribatuarekin gogaituta, karlismoa utzi zuten katolikotasunaren defentsa itsua aldarrikatzeko. Industrializazioaren hasierak lagundu zuten giroa aldatzen.



Karlosen jarraitzaileek, ordea, ez zuten etsi eta batzuk legezko bideak erabiltzen hasi ziren bitartean, beste batzuek saio berriak prestatzeari ekin zioten. Poliziaren zaintza-lanak eta erregegaiaren zalantzek ekintzetara pasatzeko orduan karlisten indarrak igatu eta konspirazio-lanak ezerezean utzi zituzten. Ez dirudi, adibidez, Karlos VII.ak iragarritako 100.000 fusilak inoiz karlisten esku egon zirenik. Batzuek eta besteek puztu egiten zuten karlismoaren indarra: Karlosen jarraitzaileek, zeuden baino indartsuago azaltzeko; poliziek, aldiz, beraien soldatak justifikatzeko. Talde-armatu batzuek muga zeharkatu zuten, agindurik jaso ez arren; baina ez zute-nez harreman zuzenik karlis-

moaren zuzendaritzarekin, ezta inguruko herrietako biztanleekin ere, ez da erraza beraien zeregina definitzea. Ekintzaile politikoen eta gaizkile arrunten artean kokatu beharko genituzke, lapurretara eta kontrabandora dedikatu baitziren. 1890eko hamarkadan matxinada bat prestatzeko ahalegin berriak egin zituzten karlistek. 1894an erregina bahitzen saiatu omen ziren Donostiako oporraldia aprobetxatuz, baina *ojalatero* asko zegoela uste dut (*ojalá que suceda*-ren aldekoak, alegia). Cubako gerra berpizteak ahalegin horiek indartu zituen eta karlismoaren antolaketa zibila eta militarra hurbildu egin ziren. Karlos VII.a, ordea, ez zen ausartzen altxamendurako agindurik ematen eta egoera nahasia sortu zen. Karlismoaren oinarrizko jarraitzaileek altxamentuaren aldekoak omen ziren, baina ez zuten alderdiko zuzendaritzaren oniritzirik. Espainiako agintariek, zaintza-lanak indartzeaz gain, armadaren maniobrak ere iragarri zituzten 1897ko udazkenerako, Hego Euskal Herri osoan, eta altxamendua ezerezean geratu zen.


Cuba galtzeak, 1899an, berriro berpiztu zuen matxinada-gogoia, bereziki Katalunia aldean. Gurean, Larrabetzun aurkitutako arma-biltegi bat da prestakuntza-lanen aztarna bakarra. Tirso Olazabalek koordinatu zuen armen

erosketa Donibane Lohizunen, eta zurrumurruek Frantzian 53.000 fusil eta Suitzian beste 50.000 erosi zituela esan arren, ehunka edo milaka batzuk baino ez ziren benetan heldu Espainiara. Beste arma batzuk, aldiz, Abisiniara heldu omen ziren arma-trafikatzaileen bitartez. Mezu ugari zabaldu ziren 1899ko udaberriatik aurrera prestaketa-lanak bizkortzeko eskatuz, baina ez altxatzeko agindurik. Ezinegonak bultzaturik, 1900eko urriaren 28an, Bartzelonako hirurogei lagunek armak hartu, beren kaxa, eta matxinada hasi zuten. Gutxi batzuek jarraitu zieten Katalunian, Jijonan eta Jaenen, baina ez beste inon. Hamabost egunetara dena amaitu zen. Matxinadan parterik hartu ez arren, makina bat karlista atxilotu zuen poliziak Madrilen, Bartzelonan, Bilbon, Donostian eta Iruñean.

Urriko ahalegin horrek, ordea, eragin handia izan zuen karlismoaren etorkizuneko bilakaeran. Matxinadaren aldeko etengabeko prestakuntzak alde batera utzi ziren, nahiz eta beraien erretolikari eutsi eta karlismoa alderdi moderno moduan antolatzen hasi zen: dotrina gaurkotu, antolaketa berregokitu, egoitzak finkatu, egunkariak sortu, bazkideen mobilizazio baketsua bultzatu eta erregegaiarekiko tartea handitu egin zen. Erreketeeina izan zen denbora luzez karlismoaren matxinadarekiko joeraren oroimenari eutsi zion talde bakarra. Baina errepublikaren garaian sortutako konspirazio militarretan parte hartu arte, bere jarduera desfileetara eta beste alderdietako militanteekin izandako liskarretara mugatu zen.

Mikel Aizpuru
EHUKO irakaslea

Hitz gurutzatuak



EZKER ESKUIN

1. Zuhaitz mota. 2. Sindikatu abertzalea. Nazioarteko garraioen siglak, erdaraz. 3. Oinazeak. Behar, egiteko. 4. Omen. Baleuzka. 5. Kontsonantea. Buruaren alde. Kontsonantea. 6. Maitale. Interjekzioa. 7. Pinu mota. Alo-kairua. 8. Nerau. Areago. 9. Donostiako auzoa.

GOITIK BEHERA

1. Urrea, esaterako. 2. Berrogeita hamabi. ... egin, agindutakoa bete. 3. Irlandako itsasoko uharte. Lilia. 4. Ontziaren ezker alde. Lumaren erdian. 5. Potasioa. Giltza. Bokala. 6. Kanpo, landa. Iskanbila. 7. Lorea. Oinarritzko edaria. 8. Norat atzikia. Nahastura trinko. 9. Emakume izena.

Letra zopa

F	O	P	A	T	I	N	A	S	O	T	E
A	R	U	R	A	B	I	N	R	K	U	B
I	E	Z	R	O	S	E	B	I	Z	I	K
L	K	A	O	R	I	U	E	D	Z	N	O
A	A	U	T	O	M	O	B	I	L	A	T
S	M	O	O	A	T	G	K	O	I	U	R
M	I	U	M	R	O	L	O	N	T	K	A
E	O	H	I	N	E	A	I	D	R	U	G
B	I	Z	E	T	I	O	N	I	E	L	A
U	A	Z	A	O	L	K	I	Z	I	R	T

LUMA

Aurki itzazu letra zopa honetan zortzi ibilgailu gurpildunen izenak. Hitzak ezker eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/415 95 12
- Argia: 943/37 15 45
- Berria: 943/30 40 30
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945/01 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- NAPIko Euskaltegia: 848/42 33 19-51
- NAPIko Euskara eta Hizkuntz Komunitarioak Zerbitzua: 848/42 33 49-51
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/02 81 00
- UZEI: 943/47 33 77

Soluzioak

Automobila, kamioia, autobusa, motorra, bizikleta, gurdia, patina, tzikloa.

Letra zopa

9. Nuria.
5. K. Kakoa. A. 6. Ar. Liskar. 7. Lilia. Ura. 8. Rat. Ore.
1. Metal. 2. LH. Men. 3. Man. Lorea. 4. Abador. Um.
Goitik behera:

Are. 9. Amara.
5. T. Lokia. R. 6. Amoros. Oti. 7. Let. Akura. 8. Neu.
1. Makal. 2. LAB. TIR. 3. Minak. Lan. 4. Ei. Baitu.
Ezker eskuin:

Hitz gurutzatuak




**Bi liburuok hemen
dituzu salgai:**



**Unibertsitateko etorbidea z/g
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tf.: 943 782 000
Fax.: 943 783 177**

**Código Medioambiental de la
Comunidad Autónoma del País Vasco
Precio: 72,80 €**

**Ingurumen zuzenbidea.
Zati Orokorra
Prezioa: 21,84 €**



IVAPeko estilo-liburua
Prezioa: 18,72 €



Libro de estilo del IVAP
Precio: 18,72 €



**Bi liburuok hemen
dituzu salgai:**



Unibertsitateko etorbidea z/g
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tf.: 943 782 000
Fax.: 943 783 177